

A large, round haystack made of dry, golden-brown straw, sitting in a field of green grass. The sky is a clear, bright blue. The haystack is the central focus of the image, with its texture clearly visible.

uk

49. zenbakia / 2003 urriak 6

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Kainabera eta lizunkeria. Juan Luis Markaidea.
6. PLAZA. Marije Arias. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Lamiako. 1934-2003.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Zirgariak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Jose Elorrieta. Esti Ezkerra.
30. ERREPORTAJEA. Delitugintza eskualdean. Unai Brea.

KULTURA ETA AISIA

32. FOTOGRAFIA. Juan Luis Markaidaren argazkiak.
36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Txema Regalado bikoizlea.
37. MUSIKA. Stropajo taldea. Diskoen erreseinak.
38. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta SHK argitalekoa.
39. KOMUNIKAZIOA. Urrunerako aginte-tresna.
40. NATURA. Sakeleko telefonoetako antenak. Trikuia.
41. ELKARRIZKETA. Gaizka Benguria, Elai-Alai dantza taldeko idazkaria.
42. OSASUNA. Depresioa eta migrainak.
43. JANTZI. Getxomoda 2003. Jon Urresti.

EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Peio Unzurrunzagari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
46. AKABUKO PUNTE. Gramatika apur bat Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan pintxo bat? Adibidez, Kala Kantarepe tabernan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Eromoko ikasleak, 1960. Unai Brea.
54. AITORMENAK. Virginia Berasategi. Eunate Serrano.

* Azaleko argazkia: **Asier Mentxaka**



26 Jose Elorrieta




32 Juan Luis Markaidaren argazkiak

Berbetan

Hamabost urte eman ditu Euskal Herriko sindikatu handienaren idazkaritza nagusian. Ibilbide luze honetaz aritu gara beragaz



16 Javier Vizcaino



44 Peio Unzurrunzaga



54 Virginia Berasategi




amesti 7sl

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]



Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Eunat Serrano

FOTOGRAFIA: Asier Menbeka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Urtzi Iglesias, Bittor Egorrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsoari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iñaki Aguirre, Eduard Ugarte, Xabier Etxebarri, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Bertots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Mixelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

HARREMANAK: Gorka Onjeta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osonik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

ITXASGANE Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

BERANGOKO Udala

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

ERANDIOKO Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Keinu antzuak

Estatistika batzukaz gauza bitxia gertatzen da: inori itauntzen badiogu ea gizartea arrazista den, baietz erantzungo du, baina ea bera arrazista den itaunduz gero, ezetz erantzungo du ia segurantzean. Antzeko zeozer gertatzen da autoagaz: ia denok gatoz bat gehiegi erabiltzen dela esatean, baina gidariei banan-banan galdetuz gero, beti argudio sendoak jasoko ditugu norberak autoa erabiltzea beste irtenbiderik ez daukala frogatzeko.

Aurreko hausnarketa duela egun batzuk ospatu den Autorik Gabeko Egunaren harira dator. Ia ezinezkoa da gaur egun zerbaiten Nazioarteko Eguna (horrela, letra larriz) ez den egunik topatzea egutegian. Gizarteko sektore askok salatzen dutenez, baina, keinu hutsak baino ez dira; are gehiago, urtean zehar egun horretan aldarrikatzen denaren guztiz kontrakoa bultzatzen da instituzioetatik, ahots askoren arabera. Autorik Gabeko Eguna ere multzo horretan sar liteke. 364 egunez, autoa erabiltzera bideratzen gaituzte hainbat modutan. Aisialdirako guneak hiriguneetatik urrunduz, garrario publikoa hobetzeko urrats eraginkorrak ez emanez, autoan ibiltzea gure estatusaren adierazgarri bihurtzen duen kultura indartuz (publizitatearen bitartez batez ere), eta abar. Hau da, autoa erabiltzeko behar ditugun aitzakiak esku-eskura ematen dizkigute. Benetako Autorik Gabeko Munduan bizitzera ailegatzeko, gu guztiok, goi-agintari zein behe-kaletar, gauza asko aldatu beharra daukagu, geure pentsakera barne.

UKko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritzia, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> **berria**



Kanabera eta lizunkeria / Harrigarria da gure buruak zelan egiten duen lan, eta? Arrantzalea, lasai, kanabera zaintzen erakusten duen erretratu hau ikusita, zuek guztiok gauza bera pentsatu duzue gutxi gorabehera. Egia esan, zergatik argitaratu behar genuen guk, bestela, argazki hau? Freud-en jarraitzaileak ez dabilza, ez, lan faltan. Orain, guri dagozkigu eronka: argazkiaren gaineko zeozer idaztea, lizunkeriarik inondik inora aipatu barik. Horretarako, Ibaizabalako arrantzagintzaz berba egiteko asmoa eduki dugu, baina ez da beharrezkoa izango, konturatzeko lekua amaitu zaigu eta. / Argazkia: Juan Luis Markaida

Leihatila

> Josu Esnaola

Zabal-zabalik

Aurreko domekan, Zinemaldia aitzakia eta eguraldi ederra tarteko, Donostian izan nintzen. Beti entzun izan dut oso hiri irekia dela, probintzia osoa karlista zen bitartean Donostia liberal. Ni probintziakoa izanik, beti identifikatu izan naiz gehiago Zumalakarregiren eta Santa Kruzen jarraitzaileekin, baina, hala ere, aitortu behar dut bere sasoiak grazia egin zidala "Euskadi Irratia zabal-zabalik" zioen iragarkiak. Beharbada ez naiz hain itxia izango.

Kontua da goiz partean San Telmora egin genuela bisita: David Seymour Chim argazkilaria erakusketak merezi zuen, bai. Domeka zenez zabalik zegoen, jakina baita museoek astelehenera ixten dituztela ateak, eta gainera sarrera doan. Zer gehiago eska daiteke hain hiri garestian?

Gerrako argazkiak oraindik ere begi ninietan generamatzala, alde zaharrean murgildu ginen, ikatz kalean zehar. "Herria" taberna, baina, itxita zegoen, polizia espainiarrak itxia. Fermin Kalbeton kalean, berriz, Bilintx megadenda zabalik ikustean neuri ere zabal zabalik lotu zitzaizkidan begiak, a ze makurra dendarien patua, a ze asegaitzak kontsumitzaileok, ez ei dakigu erosi besterik egiten.

Beharbada Zabaltzenekoek ahalik eta gehien aprobetxatu nahiko dute denbora, megaenpresariari bidetik bada ere, epaile malapartaturen batek indarrez itxi aurretik, lehena go Egin eta Euskaldunon Egunkaria itxi zituzten bezala, Iñaki Uribe, Xabier Oleaga eta Xabier Alegriaren ateak itxi zituzten bezala, hamaika euskaldunoi ahoa itxi diguten bezala. Baina gizon oso batek esan zuen bezala, "berriro zabalduko dira zumarkale zabalak...". 4

Iritzia

Duela pare bat aste Sestaoko ACB altzairu-fabrikaren gertatutako istripuak zer esan ugari sortu du komunikabideetan eta kalean. Guri ere eragiten digu, hurbiltasunagatik, eta beraz, gaiaren gaineko iritzia eskatu dugu. Kasu honetan, Ekologistak Martxan taldeari.

Sestaoko ACBren gainean

Duela egun batzuk Sestaoko ACBn (eta aste batzuk lehenago Portugaleteko Nervaceron) aurkitutako erradioaktibitateak berriro utzi ditu agerian mota honetako material arriskutsuen kontrolean dauden gabeziak. (...)

Ia ziurtzat jo daiteke Bilboko Portutik mota honetako material erradioaktiboak sartzen direla, eta honek berriro ere agerian uzten du premiazkoa dela talde ekologistek (eta Portuko sindikatuak eurek ere) hamaika bider plazaratu duten aldarrikapenari erantzun beharra. Alegia, Portutik sartzen diren material guztiak erradioaktibitate-neurgailuen bidez kontrolatzea. Eta bereziki metalezko txatarrak, horietatik asko inongo berme eta kontrolrik gabeko herrialdeetatik ekartzen dira-eta, merkeago lortzearen.

Txatarra hauek, askotan, osagai arriskutsuak edukiten dituzte euren baitan: gai erradioaktiboak aurkitzen dira industrian, medikuntzan eta ikerkuntzan erabiltzen diren tresna askotan (x izpiak, metal-detektoreak, tximistorratz erradioaktiboak, etab.), eta tresnok erradioaktibitatea deuseztu gabe bota ohi dira.

«Ia ziurtzat jo daiteke Bilboko portutik material erradioaktiboak sartzen direla»

Berriro frogatu da kontrola altzairu-fabrika eta galdategietan egitea (detekzio-arkuen bidez) ez dela nahikoa, eta gainera, ez dituela eragozten lantegira arteko garraioan gerta daitezkeen ingurumen-kalteak edo arriskuak.

Gainera, Ekologistak Martxan-ek eta Ecologistas en Acción-ek salatu egiten dute era honetako gertakariak detektatzeko ezarri zen REVIRA sareak ezer gutxirako balio duela. Ez Alacalá de Guadairako istripuan, ez eta Sestaokoan ere, sareko neurgailuek ez dute aurkitu airean zegoen material erradioaktiboa. Era berean, Acerinoxen isurian handik egun batzuetara baino ez zen aurkitu erradioaktibitatea.

Eta azkenik, eta hau da garrantzitsua, Ekologistak Martxan-ek eta Ecologistas en Acción-ek altzairu-fabriketako kontrol-protokoloa aldatzeko eskatzen dute, aurrekoak bezalako istripu arriskutsuak etorkizunean berriro gerta ez daitezken. Beharrezkoa da labetan erreko dena ezagutzen dela bermatzea, bai txatarraren kontrol zorrotz baten bidez, edo bai ziurtapen-sistemaren baten bidez. Azken honek, gainera, halako kutsatze eta isurien arduradun nor diren argi erakusteko aukera emango luke. Baina, batez ere, txatarra galdatu aurretik haren kontrol erradiologiko zorrotza egiten behartu behar dira mota honetako enpresak. Guztiz beharrezkoa da industriaren munduan horrelako jokabideak ezartzea, ezezagunak diren erradioaktibitate-iturriak ugari dira-eta. Denbora kontua besterik ez da bestela: goiz edo berandu edozein altzairu-fabrikatoko labetan Cs-137a erreko da ostera ere.

Horregatik, ezinbestekoa eta atzerazina da eskatzen duguna: gure errepideetan, eta batez ere, gure portuetan garraiatzen diren material arriskutsuen gainean kontrol zorrotzak ezartzea, langile ugariaren eta herri osoen osasuna arriskuan jartzen duten istripuak saihesteko. 4


Marije Arias (Ekologistak Martxan Bizkaia)

**Iraganez doa denbora* beti / LAMIAKO 1934-2003**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Abrako piztiaren eraso

Argazkia & manipulazioa: Asier Mentxaka



Konporte kalearen hasiera, lehen eta orain


begizorrotz > ondarea, hondar bihurtuta

Begizorrotz da ataltxo honen izena, baina Konporte kalearen hasieran gertatutakoaz konturatzeko ez dago oso begirada zorrotza beharrik. Lehen zegoena orain ez dago. Hori bezain erraz, hori bezain anker. Aurrerapen deritzon piztia horrek ez dauka ezerentzako begirunerik, ez eta Algortako ondareztat har daitezkeen zenbait harresientzako ere. Duela hilabete batzuk Algortako estiloko eraikinez berba egin genizuen; XIX. mendearen amaieran bertan agertutako estilo berezia da, Berangoko harri bereziak erabiltzen zituena eta beste inon erabili ez zena. Era horretako hainbat etxe daude irudietan ikus dezakezuen Konporte kaleko zati honetan, eta ezkerreko argazkian ageri denez, harresi eder bat ere bazegoen. Orain, Algortako estiloagaz zerikusirik edukiko ez duten bestelako etxe batzuentzako lekua utzi behar izan du harresiak, inguruko biztanle askoren, eta lagun biologo batek esan digunez, bertan bizi ziren landare espezie interesgarri askoren zoritxarrerako. ^m

bazen > erandioztar bat Kolonegaz

1492ko urriaren 12an, espainiar eta euskal marinel batzuk, italiar bat buru zeukatela, ordura arte ezaguna ez zen lur batera ailegatu ziren itsasoz. Harrezkerotik, lur hori "aurkitu" zutela esaten da, ordurako jende mordotxo bertan bizi zen arren. Tira. Kontuak kontu, badirudi gure eskualdeko gizon bat ere bazegoela marinel haien artean, José Manuel Fajardo idazleari kasu egin behar badiogu. *Carta del fin del mundo* eleberrian, Fajardok Lope izeneko erandioztar baten berri ematen digu. Lope hori Santa María ontziko istinkaria ei zen (bide batez esateko, Santa María ez zen karabela motako ontzia); Santanderren egina zen ontzi hura, eta hainbat bizkaitar zihoazen bertan Amerikara ailegatu zenean. Jakina denez, Santa Mariak ezbeharrak eduki zuen Kolonen lehen bidaia hartan, eta marinelek ontzian bertan gelditu behar izan zuten, baita gure Lope erandioztarrak ere, Fajardoren esanetan. Idazleak eleberrian amaieran dioenez, benetakoa dugu delako Lope hura, baina guk ez dugu modurik eduki hori baieztatzeko. ^m

Mundua biribila dela egiaztatu gura zuen Kristobal Kolonek



gauzak >

sakeleko telefonoak 30 urte bete ditu



Gaur egun, ezin dezakegu ulertu gure bizitza sakeleko telefonorik gabe. Baina harrigarria den arren, garai batean segapoto barik bizi ginen. Duela 30 urte, 1973an, Motorola enpresako Martin Cooper ingeniari elektrikoak lehenengo dei publikoa egin zuen telefono mugikor batetik. Erabili zuen "tramankuluak" (DynaTAC izenekoa) kilotik gora pisatzen zuen, neurritz 23 zentimetrokoa zen, 35 minutuz hitz egiten uzten zuen eta hamar ordu behar zituen kargatzeko; hamar urteren buruan merkaturatu zen. Asmakizunak oraindik amaitu ez den iraultza hasi zuen, eta azken modeloek (gero eta txikerragoak) internet edo argazki-kamerak dauzkate. Deiak egiteko ere balio dute, noski. ^m

kale izendegia > Joakin Atxukarro



Joakin Atxukarro piano-jolea

Ez da oso erraza oraindik bizirik dirauen pertsona baten omenez kale bat aurkitzea; salbuespena, Leioako San Bartolome auzoan topatu dugu: Joakin Atxukarro kalea. Bilbon 1932an jaioa, piano-jole handi honek unibertsitate-ikasketak utzi zituen musika ikasten hasteko. Italiako Chigiana akademian ikasketak sakondu ostean, bertako ohorezko akademiko izendatu zuten. 1959an, Atxukarrok Liverpool-eko nazioarteko piano lehiaketa irabazi zuen, eta urte berean Londresen egin zuen debuta. Harrezkerotik, mundu osoan ibili da piano kontzertuak ematen: 200 orkestra baino gehiagogaz jo du, 60 herrialde baino gehiagotan. 20 diskotik gora grabatu dituen Joakin Atxukarro Dallas-ko Unibertsitate meto-distan piano-katedraduna da. 1992an Espainiako musika-sari nazionala eman zioten. ^m



ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris.s.L. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

**BISITATU
GURE DENDA!**

MOROTXO



**350^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA**

**TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82**

Leku gutxi hizkuntzetarako

Aurtengo irailean, berriro ere, lepo egon dira **Getxoko Hizkuntza Eskola Ofizialean** matrikula egin gura zutenen ilarak. Eskola jaiotzatik da txikia, **Evaristo Arbaiza** zuzendariaren ustez, eta oraingoz zaila da handitzea

1989an sortu zen **Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala**. Orduetik hona **Areetako eskola zaharretan** egon da, dagoeneko gainezka egin duen eraikin batean. Irailero, ilara itzelak izaten dira matrikula egiteko egunetan, eta jende askok, gainera, helburua bete barik joan behar izaten du etxera. **Arazo horretaz egin dugu berba eskolako zuzendariagaz.**

Aurten Getxoko Hizkuntza Eskolaren aurrean sortu diren ilara amaigabeak ez dira kontu berria. *“Egia da azken boladan eskari gehiago egon dela, hainbat akademia pribatutan egon diren arazoengatik”*, azaldu digu Evaristo Arbaiza eskolako zuzendariak, *“baina bestela ere hau ohikoa izaten da hemen”*. Arrakastaren zergatia ez da oso metafisikoa: *“Besteak alderatuz, hau ia doanekoa da”*.

Eskolaren sorreragaz batera hasi zen Arbaiza bertan lanean, hasieran ikasketaburu modura. *“Askotan esan dut, jaiotzean, txiki jaiotzean eskola hau”*, diosku, *“bere gain hartzen duen eremua oso zabala eta biztanletsua delako”*. Zuzendariaren iritziz, gaur egun jende askok dauka hizkuntzak menperatu beharra, lanagatik edo ikasketengatik, eta hori nabariagoa da Uribe Kostan.

Leku gehiagorik ez

Kontuak kontu, orain arte Hizkuntza Eskolak urterik urte gero eta eskari handiagoari egin dio aurre, baina orain honetan lepo egin duela esan daiteke. *“Behin eta berriaz egin ditugu aldatetarik eraikinaren barruan leku gehiago edukiteko, baina orain*



Argazkian, Evaristo Arbaiza, Hizkuntza Eskolako zuzendaria

ezinezkoa da”, kexu da Arbaiza. Gainera, badirudi arazoak bere horretan jarraitu beharko duela: *“Ez dago proiekturik, nik dakidanez, leku berria bilatzeko. Dena dela, kontuan eduki behar da hau ezin dela edonon kokatu. Orain oso leku egokian gaude Portugalete eta Santurtziko ikasleentzat; al-*

«Ezinezkoa da eraikinaren barruan aldatetarik gehiago egitea lekua irabazteko»

de horretatik begiraturuta, Urdulizko eraikintzar batera joatea, adibidez, oso arriskutsua izango litzateke”.

Leku ezak hainbat asmo eten ditu, Arbaizak dioenez. Esaterako, errusiera eta italiara ikasketak eskaintzeko asmoa izan

zuten, baina oraingoz ezinezkoa da. Bitartean, aurten ere ehundaka ikasle geratu dira matrikula egin ezinik. ^m

DATU BATZUK

- Getxoko Hizkuntza Eskolaren eremua Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sopela eta Urdulizek osatzen dute. Guztira, 230.000 biztanle inguru.

- Iaz 3.400 ikasle egin zuten matrikula ofiziala, hau da, eskolan bertan ikasketak burutzeko (beste 2.500 lagunek matrikula askea egin zuten). Ingelesa izan zen nagusi, matrikulen erdia baino gehiago hizkuntza horretarako egin ziren eta: 1.800 bat. Euskara izan zen bigarren hizkuntza hautatuena, 800 matrikulagaz. Frantsesak eta alemanierak, berriz, 600 eta 200 matrikula berenganatu zituzten, hurrenez hurren.

Jantzi zaharrak berri

Caritas-en ekimen bati esker



Nagore Badiola (eskuinean) Sarrikobaso kalean zabaldu den dendaren arduradun batez

2000n Caritas-ek hiru helburu dituen ekimen bat ipini zuen abian: arropak ematea eta biltzea garai berrietara egokitzea, lana aurkitu ezinik dabilen pertsonentzako lanpostu egonkorak sortzea, eta erabiltzen ez ditugun jantzien bizitza luzatzea. Nagore Badiola bilbotarrak ekimen horren ardura hartu zuen iaz, eta esan digunez, *“orain, 23 lagun dabilta beharrean”*.

Proiektua modu bitan gauzatu da Getxon. Alde batetik, arropak botatzeko 25 edukiontzirik paratu dituzte (Leioan ere) jende asko egoten den tokietatik gertu. *“Horiei esker beste aukera bat dago jantziak emateko, ez bakarrik elizan uztearena,*

orain arte gertatu izan den bezala”. Edukiontzirik karratu forma daukate, eta kolorez berde dira, Caritas, Rezikleta eta Behorri kooperatibaren logotipoakaz.

Bestalde, *Ekorropa* izeneko dendak ere sortu dira, *“bigarren eskuko jantziak duin bihurtzeko helburuagaz”*, diosku Nagore Badiolak. Bizkaian zazpi ireki dituzte, eta horietako bat Algortan aurki dezakegu irailaren 1az geroztik; bertan *“denontzako arropak eros daitezke oso prezio merkean”*. Jantziok *Ekorropa* dendetara banatzen dituzte, sailkatu, desinfektatu eta etiketa ipini ostean. ^m

UDALAREN ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Getxoko Udalak eta Deustuko Unibertsitateko Aisiako Ikaskuntzen Institutuak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute egitasmo iraunkor eta irekia burutzeko helburuagaz. Itun horren bitartez, eduki kulturala izango duten 15 orduko lau ikastaro antolatuko dituzte, euskaraz zein gaztelez. Azarotik urtarrilera arte luzatuko dira, eta parte hartu gura dutenek hilaren 24a arteko epea izango dute izena emateko eta 60 euro ordaintzeko (diruz estu dabilzanen zatitza merkeago izango dira).

GETXOKO IRUDI TURISTIKOAK KAMISETETAN

Getxoko Turismo Bulegoak herria ezagutarazteko 150 kamiseta kaleratu ditu, bisitariak eta getxoztarrek egindako proposamenei jarraituz. Kamisetetan Bizkaiko Zubia, Portu Zaharra eta zenbait monumenturen irudiak agertzen dira. Mahuka motzekoak dira guztiak, 12 euro balio du bakoitzak, eta Ereagako hondartzako Turismo Bulegoan eros daitezke.

Salgai dauden kamiseta batzuk



cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopia.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiatu kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien inprimaketa!

Kirol Portua

Udala, ugazaba nagusi

Getxoko Udaletxea Kirol Portuko ugazaba nagusia izango da hemendik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiak “Puerto Deportivo El Abra-Getxo” elkartearen zeuzkan akzio guztiak udalari saltzea erabaki ostean. Guztira, 13.300 akzio izango da eskuz aldatuko direnak, eta Udaletxeak 400.000 euro baino gehiago ordaindu beharko ditu euren truke.

Iñaki Zarragoa alkatearen ustez, Kirol Portuko akzioak erostea “udalari mesede egingo dion inbertsio ederra da, besteak beste Portuaren funtzionamenduaren jarraipen egokiagoa egitea eta erabiltzaileen kexei arreta hobea eskaintzea ekarriko dituelako”.

Getxoko Udaletxeagaz batera, Eusko Jaurlaritzak ere bere partaidetzari eutsiko dio Kirol Portuan. Izan ere, instituzio horrek dauka EAEko kirol portu guztien ardura, eta beraz, ezinbestekoa da bera elkartearen parte izatea. m



Patrice Fincias >

Bizkaiko Bridge Elkartearen presidentea

“Bridgea buruaren kirola da, baita bizitzaren isla ere”



Argazkian, Patrice Fincias

Duela 19 urte, bridge-zale amorratu honek Normandiako sorterria utzi, eta Aretarako bidea hartu zuen. Patrice Fincias 170en bat bazkide dituen Bizkaiko Bridge Elkartearen presidentea da iaztik. Munduan badira 60 milioi lagun kirol hori egiten dutenak.

—Karta-joko bat kirola izan daiteke?
—Bridgea ez da karta-joko bat, kartak egiten den jokoa baizik. Hori da alde nagusia. Gero, zoriaren faktorea ez da hemen sartzen, txapelketa batean denok karta berdinez jokatzeko dugulako. Xakera hurbiltzen da gehiago karta-joko batera baino.
—Baina non dago kirola bridgean?
—1999an Nazioarteko Batzorde Olimpikoak kirola zela onartu zuen, eta bridgearen olimpiadak neguko joko olimpikoen aurretik jokatu direla erabaki zuen; iaz egin ziren lehenak Salt Lake City-n. Gainera, Europako txapelketa batean, adibidez, ehun partida-edo jokatu ohi dira egunean, eta horrek fisikoki nekatu egiten du. Ondo ez bazaude, ez duzu irauten.

—Ba al dauka bridgeak kirol-egiturarik?
—Jakina. Herrialde bakoitzak bere txapelketak antolatzen ditu, Europakoak eta mundukoak ere badira, federazioak... 1925az geroztik mundu guztiak arau berdinen arabera egiten du bridgean; beraz, hemen Japonian bezalaxe jokatzeko da. Nik toki askotan jokatu izan dut (Suedia, AEB, Mexiko, Holanda, Hong Kong, Hego Afrika), eta noski, zenbat eta hobeto izan, are eta onartuagoa zaude. Berba gutxitan esanda: bridgea unibertsa eta denon hizkuntza da.

—Orduan, zein da kirol honen arrakasta?
—Bridgea oso mesedegarria da buruarentzat, eta bizitzaren isla ere bada apur bat: zure kartak hartzen dituzunean, informazioa lortzen duzu, eta hori biltzen dituzunean, erabaki bat hartu behar duzu. Ameriketako multinazional batzuek pertsona bat kontratatu behar badute, aintzat hartzen dute bridgean jokatzeko duen ala ez. Gainera, itzel garatzen du ikus-oroimena.

—Euskal Herrian bridge-zale ugari daude emakumeen artean, ezta?

—Bizkaiko elkartearen badira 130 edo 140 emakume. Hortik atera kontuak. Ez da harritzekoa beraien senarrak eurek lehiazten ez ausartzea. Guk hori aldatu gura dugu.

«Bridgean zoriaren faktorea ez da sartzen»

—Joko hau ezagutarazi ere gura duzue.
—Bai. Sortu dugun BBCn (Bilbao Bridge Club) irakasle bat daukagu, eta ikastaroak eta hitzaldiak antolatzen dira. Gainera, dagoeneko ez da beharrezkoa elkarte pribatu bateko kide izatea txapelketetan parte hartzeko. m

* Harremanetarako Manuel de la Maza
BBCko zuzendariari deitu 677 386 873
telefonora.

Euskal antzerkiaren eskaparatea

Hileon era askotako antzerkia ikusgai Getxon



Antzezian batzuk kalean ere egingo dira. Irudian, iaz aritu zen Tambours De Feububu taldea

Honezkeroko 21. aldia beteko dute Getxoko Antzerki Jardunaldiak. Asteburu oso bitan (urriak 17-19 eta urriak 24-26), antzerkia barra-barra ikusteko aukera izango da Getxon, “azken hamar urteotako filosofiari eutsiz”, Iñaki Saitua jardunaldion arduradunak azaldu digunez. Alegia, gure herria “Euskal Herrian egiten den euskarazko zein gaztelaniazko antzerkiaren eskaparatea” izatearen filosofia. “Antzerkia diogunean, esangura zabalenean hartu gura dogu berba”, diosku Saituak, “umeentzat,

helduentzat, kalean, aretoan, lan serioak, lan barregarriak...”. Kultur Etxeko langilearen esanetan, denok topatu ahal izango dugu gustuko lanik jardunaldi hauetan. Antzezlanak hainbat lekutan izango dira ikusgai, eta esan bezala, batzuk kalean egingo dira: “Arrakasta handia eduki ohi dute kaleko lanek”, dio Saituak, “jende asko ez da bere kasa joaten aretoetara, eta modu honetan, geuk errotan diogu antzerkia jendeari”. m

23. orrialdean aurkitu ahal izango duzue urriaren 17, 18 eta 19ko egitarau zehatza

EGIZUREN EKITALDIAK URRIAN ZEHAR

Egizur hainbat ekitaldi iragarri ditu hil honetarako. Dakizueenez, Egizu euskara erabiltzea sustatzeko Getxon sortutako egitasmoa da, eta berorren ekitaldietako bat, hain zuzen, aurkezpena izango da: urriaren 23an (eguna), Getxoko Udal Euskaltegian, eta Adur Antzerki Taldearen eskutik, azalduko dira Egizur aurtengo ikastarorako dituen asmo eta helburuak. Lehenago, urriaren 16an (eguna), hitzaldia egingo da Algortako Villamonteko Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Ekologistak Martxaneko Itziar Mielgoren izango da hizlari, “Prestige: globalizazio ekonomikoaren beste ondorio bat” gaiaz jarduteko. Azkenik, urriaren 28an (martitzena), Beatriz Elgezabal ipuin kontalariak *Sorginkeriak* kontakizuna ekarriko digu. Erromoko Kultur Etxean izango da hori, arratsaldeko 20:00etan.

TXIKIAKAZ NAGUSI, FAMILIAK EUSKARAZ

Getxoko Udalak, beste bost herrigaz batera, Txikiakaz Nagusi izeneko egitasmoa ipini du abian. Helburua gurasoek eta seme-alabek giro euskaldunean elkarregaz jardutea da, eta horretarako hainbat egiteko prestatu dituzte. Gehienbat irteerak antolatuko ditu Txikiakaz Nagusi-k. Hala, datorren urriaren 25ean (zapata), Donostiara egingo da txangoa, eta Aquarium-ari, izotz pistari eta abarri bisita egiteko aukera izango dute parte hartzen dutenek. Asteburuko egonaldia iragarri dute azaroren 22-23rako, baina ez da lekua zehaztu oraindik. Irtenaldi hau 6 eta 10 urte bitarteko umeentzat izango da.

KURKUDI
LIBURUDENDA
Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

San Nikolas
IKASTOLA

SATURDAY PLAY-SCHOOL

3-10 urteko euskaldunentzako INGELES ikastaroa
Urritik Ekainera, larunbatetan

• San Nikolas Ikastolan (Algorta) • Talde txikiak

Informazioa eta izena emateko:
Didak-Hamilton Idiomas / Dr. Landa, 6. 48600 Sopela. Tel: 94 676 30 12

Arazoak

animalien bilketagaz

Leioako Udaletxea animalien bilketa-rako zerbitzu egokia topa ezinik dabil. Zerbitzu hori esleitzeko lehiaketa publikoa deitu ostean, abuztuan inori ez ematea erabaki zuten, enpresa bakarra aurkeztu zela ikusita. Hain zuzen, orain arte lan hori egin duen enpresa da aurkeztu dena; Udaletxeko arduradunen ustez, berau ez da egokia, Santurtzin daukalako egoitza, eta horrek zerbitzuaren arintasunari eragiten dio. Beraz, irailaren erdialdean berriro deitu zuten lehiaketa, Neguriganeko katuen auziak (ikus UK 48) arte edo ixo egin behar zuten egunetan hain zuzen. Udaletxeak gai hau arretaz hartu duela erakusten du, argi eta garbi, zerbitzuagatik orain arte ordaintzen zutena halako bi eskaini izanak. ^m



Inguru honetan egingo dira lanak

Herriaren itxura aldatzen

Errotzaharraren inguruan abendura bitartean egingo diren lanek hainbat aldaketa ekarriko dute

Udaletxeak iragarritakoa bete bada, honezkerok hasita egongo dira Errotzaharraren inguruan hainbat aldaketa eragingo dituzten lanak. Errota bera konpondu ostean, udal agintariak alboko urtegia handitzea erabaki zuten, eta horixe izango da, hain zuzen, lan hasi berrien helburu nagusia.

Emaitza, Udaleko teknikari batek adierazi digunez, aintzira txiki bat izango da. Guztira, 600 metro koadro edukiko ditu aintzira horrek, oraingo urtegiak baino dezente gehiago. Aintzira egiteko, oraingo presako hormak bota egingo dira, ingurutik lurra kenduko da, eta horma berriak eraikiko

dira.

Lanek, besteak beste, Elexalde erreka-urek gainezka egitea eragotziko dute. *“Orain arte ez da izan halako anazorik, egia esan”*, dio aipatutako langileak, *“gaurko legediak behartuta egiten dugu aldaketa”*. Bestetik, Errotzaharra, Kastoreak arrantza-eskolaren egoitza izango da lanak amaitutakoan. Valentín Turrado presidenteak azaldu digunez, arrainak botako dituzte sortuko den aintzira berrira: *“Arrantzatzeko arrainak izango dira, eta elkarte-ko kideek bertan jarduteko aukera edukiko dute”*. Gainera, naturaren areto bat paratu gura dute erroten, bertoko animalien gaineko erakuske-

Julio Gómez eta Piedad Santamaría > margolariak

Familia-erretratu



Julio eta Piedadaren helburua margolaritzatik soilik bizitzea da

Joan den irailaren 14an, Piedad Santamaría eta Julio Gómez Menak Tuterako Kaleko Margolaritza Lehiaketako sari na-

gusiak eurenganatu zituzten. Dena etxe berean lotu zen, hortaz, Julio eta Piedad, leioaztarrak biak ere, senar-emazteak dira

eta. Ez pentsa, dena dela, berriak direnik sariak eskuratze horretan: Piedadek ia ehun irabazi ditu; Juliok, berrehunen bat.

Orduak eta orduak ematen dituzte estudioan beharrez. *“Juliok batez ere, ni alperragoa naiz”*, aldarrikatu du Piedadek. Berak ez du margotzea beste lanik, senarrak aldiz bai, baina bien helburua margogintzatik soilik bizitzea da. *“Orain arte bezala badoakigu, posible da”*, dio Piedadek; izan ere, sari eta salmenten artean zerbait poltsikoratzeko gauza izaten dira. Lana erruz eginez, jakina.

Margogintzak pozoindua

“Bizimodu honek denbora guztia kentzen digu”, diosku Juliok, *“ez dago denborarik ez familiarako, ez aisialdirako, beti egoten da-eta zer eginik: margotzea ez bada, gai bat prestatzea da, edo erakusketa bat ikustea, edo...”*. Protesta izpirik gabeko berbak dira ordea, gogokoen duten lanean dihardute eta: *“Margogintzak pozoindu egin gaitu, eta hala izan behar du gainera, aurrera egin gura bada behintzat”*. ^m

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Javier Vizcaino > "sukaldari" bihurtutako kazetaria

"Astrabudukoa naiz eta harro nago"



Argazkian, Javier Vizcaino

Javier Vizcainok larunbatero "Más que palabras" bost orduko irratsaioa egiten du Radio Euskadin. Etxean sartzen zaigu irrati uhinetatik eta "Cocidito madrileño" ekartzen digu mahaira. Euskal Herriari buruz Madrilgo irrati esatariek esandakoak ditugu Cocidito-ren oinarrizko osagaiak. Izan ere, irratsaioaren izpiritua oinarri hartuta, Javierrek "Best seller" bihurtu den liburua argitaratu du, estatuko hiriburuko kazetariak esandako "bitxikeriak" bilduz...

—Zer da zuretzat Astrabudua?
—Nik Astrabudian eman dut bizitza eta harro nago. Astrabudukoa naizela aldarrikatu dut betidanik, bertoko izatea zaila zenean ere. Autobus batzuetako txartele-tan agertu arren, jendeak jakin ere ez zekien non zegoen gure auzoa. Gaur egun Astrabudukoa naizela esatea errazagoa da, auzoak izan duen giro aldaketa besterik ez da ikusi behar: posta bulegoa, pub irlandarrak... Astrabudian pisu batengatik 40 milioi baino gehiago eskatzen dutela jakitean zur eta lur geratzen naiz. Dena den zazpi bat urte daramat Astrabudutik kanpo eta jende askok aurtengo San Lorenzo jaietako pregoiarekin jakin du irratiko esataria Astrabudukoa zela.
—Zelan bururatu zitzaizun Cocidito moduko saioa egitea?
—Ideia ez zen berria, 6 edo 7 urte eman dut ideia lantzen, eta hasieran beldurra ematen zidan. Batetik lan handia eskatzen duelako, irrati asko entzun behar da eta. Bestetik, ikutzen ditudan gaiak nahiko labankorrak dira eta arlo juridikoan ere arazo asko sor daiteke. Izan ere, estatuko komunikabideetan Euskal Herriari buruz dagoen ezjakintasuna agertaraztea da saioaren ideia nagusia. Horrekin batera, Kazetaritza fakultatean ikasitakoarekin zerikusi gutxi duen hainbat dogma eta gezur salatu nahi izan dut.

—Irratsaioarekin batera liburua argitaratu duzu eta "Best seller" izan zara.
—Bai, bai, oraindik ez dut sinesten, baina egin ditugun aurkezpenetan jende ugari agertu da. Euskal Herriko liburu azoketan orduak eman ditut liburuak sinatzen. Harrituta nago arrakastarekin, eta niri ez, beste bati gertatuko balitzai moduan bizi dut ospe bitxi hau.
—Zein da zure ustez arrakastaren zioa?
—Seguru asko, min egiteko gogoz esaten dizkiguten gauzen kontura barre egiteko

«Cociditorako osagairik aurkituko ez banu, poztuko nintzateke»

gaitasuna izatea da arrakastaren zergatia. Niretzat garrantzitsua litzateke Cociditorako osagairik ez izatea. "Euskal" izena duen edozein gauzaren aurkako eraso baretu egin dela esan nahiko luke horrek. Beraz, larunbat batean Cociditorako osagairik aurkituko ez banu, ni behintzat poztu egingo nintzateke.
—Araozak izan dituzu zure saioan aipatzen dituzun pertsonekin?
—Tira ba, hainbatetan irratietan eta, gure saioari buruzko iruzkinak egin dituzte, baina pertsona horiek nirekin zuzenean hitz egiteko aukera izan dutenean gaia saihestu egin dute... m

Mendiaren eta mikologiaren kultur astea

Urriaren 20tik 26ra Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean

Atxazpe mendi taldeak egitarau erakargarria prestatu du aurtengo kultur asterako. Hamabigarrena den aste honetan bi erakusketa zabalduko dira kultur etxeke erakusketa aretoan, asteleheneetik barikura, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Batetik Euskal Herriko zuhaitz, mineral eta fosilen erakusketa, eta bestetik, taldeak antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako lanak izango dira ikusgai.

Gero, mendia eta eskaladari buruzko ikus-entzunezkoak etorriko dira. Astelehenean, urriak 20, aurkezpen ekitaldia 19:30ean. Martitzenean diapositiba emanaldia: Adolfo Madinabeitiak "Amin Brak" eskainiko du, Himalayako hormatzar hori eskalatzeko ahalegindu zeneko aldia gureganatzeko.

Eguenean Willy Bañalesen "Polo Norte-Polo Sur" proiektzioa edukiko dugu. Urtebeteko epean bi poloak zapaltzea lortu duen euskal espedizioaren partaide izan da Bañales. Orain arte beste inork ez du horrelakorik lortu, eta bizitako esperientzia kontatuko du irudiz lagunduta. Barikuan,



Argazkian, taldeko kide batzuk

berriz, "Makalu"ri buruzko emanaldia izango dugu Edurne Pasabanekin, eta ondoren argazki lehiaketako sari banaketa.

Mikologiaren atalari dagokionez, zapatu goizean mendiko irteera izango da perretxikoak batzeko. Baturikoak arratsaldean sailkatu, eta domekan, urriak 26, perretxikoen erakusketa izango da Josu Mu-

rueta plazan. Aurten rokodromoan eta tirolinan ibiltzeko aukera ere izango da.

Atxazpe mendi taldeak hilean bi irteera egin ohi ditu urte osoan, hileko bigarren eta laugarren asteburuetan. Baina horrez gain, beste ekimen batzuetan ere parte hartzen du, eta urriko kultur aste hau du ekitaldi nagusia. m

Euskara ikastaroak 2003/2004

IRAILA - EKAIN - SEPTIEMBRE - JUNIO

MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES 16 urtetik gora / A partir de 16 años

- * Egunean 2 orduko ikastaroak
- * Astean 5, 4, 3, 3, eta 2 egunekoak
- * Maila guztiak. Ordu-tegiak: goizez, arratsaldean, eta gauetan
- * Ikastaro bereziak: Hizkuntza eskakizunak, EGA...
- * Cursos de 2 horas diarias
- * 5, 4, 3 y dos días a la semana
- * Todos los niveles. Horarios de mañana, tarde y noche
- * Cursos especiales: Perfiles lingüísticos, EGA...

ABIERTA LA MATRICULA Del 1 al 23 de Septiembre

MATRICULA ZABALIK Irailaren 1etik 23ra

*CLASES en Astrabudia (IES Astrabudia) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)

*Baditugu BEKAK eta DIRU-LAGUNTZAK. GALDITAN ONEMOS DE BECAS y AYUDAS. !INFORMATE!

ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Bekoa Ikastetxea, Desanexión kalea, 4 behea Tel.: 94 467 60 70
erandio.eusk@euskalnet.net / www.udaleuskaltegiak.net



EUSKAL DANTZAK ETA TXISTU IKASTAROAK ASTRABUDUAN

Trabudu Dantzari Taldeak hasiera eman dio ikasturte berriari eta dei egin die auzoko neska-mutilei euskal dantzak ikasten has daitezen. Lau urtetik gorakoak hartzen dituzte dantzari fin bihurtzeko asmoz. Bestalde, musika gogokoa dutenei begira, txistua jotzeko ikastaroak ere antolatu dituzte, 10 urtetik gorakoentzat. Horrela, Astrabudian euskal folklorea lantzen 25 urtetik gora daraman taldeak kide berriak lortu gura ditu, etorkizunean ere euskal dantzek bizirik iraun dezaten gure inguruan.

Udal zergak

Datorren urtekoak %5,5 igoko dira

Irailaren 25ean egindako ohiko udal-batzan, herriko agintariek 2004ko udal zergen eta tasen igoera onartu zuten; %5,5ekoa izango da, hain zuzen ere. Azken urteotan ez da igoerarik izan, eta eztabaidatu eta azkenean onartu dena Kontsumoko Prezioen Indizearena baino gutxiago ei da. Alabaina, zergen eta tasen gorakada horrek zenbait sari ere dakartza sopoloztarrei.


Horien artean, %5aren beherapena dago euren ordainagiriak helbideratzen dituzten herritarrentzat. Bestalde, kide askoko familiek, Ondasun Higiezin Zergan hobari "garrantzitsua" nabaritutako dute, babes ofizialeko etxebizitzaren jabeek bezala. Elbarrituek, berriz, ibilgailuen zerga ez dute ordaindu beharko.

Azkenik, Jarduera Ekonomikoen Zerga kenduko die Udalak, urtean milioi bi euro baino gutxiagoko fakturazioa daukaten dendei; hau da, "Sopelan dauden denda txiki eta ertain gehienak", adierazi digutenez. ^m

«Ordainagiria helbideratzen dutenek beherapena izango dute»

Heri osoa sarean

Urriaren azken aldera ikusgai egongo da internet-en udal webgune berria



Denden eta elkarten gidak, Sopelana gurea egunkaria, mapa bat, alegiazko hiru ibilaldi leku desberdinetatik eta abar aurki daitezke webgune osatu eta dotore honetan.

UKaren 41. zenbakian azaldu genizuen internet-zale gehien dituen herrietako bat Sopela dela. Teknologia berriak zabaltzeko ekimen askoren sorlekua ere bada; horien artean, duela lauzpabost urte sortu zen udal webgunea aipatu behar da nahitaez: www.sopelana.net. Bere helburu nagusia herrian gertatzen diren berri guztiak eskaintzea da.

Lehen bertsio hura oso estatikoa zen, eta oraingoagaz ez zeukan batere zerikusirik: "Itxuraz guztiz aldatu da. Orain webgune bizkorra daukagu, eta erabiltzaileak gura duena aurkitzen du berehala; gainera, badaki edukiak sarri berritzen direla", azaldu digu Ricardo Ibarra alkateordeak. Aurtongo udaberrian webgunea goitik behera eraberritu zuten, baina urriaren azken alderako berrikuntza gehiago prestatu dituzte. Ibarra nabar-

mentu duenez, foroetan "horrelako 'ildo zuzena' zabalduko dugu udal alderdi politikoez"; bertara "herritarrek euren galderak bidali ahal izango dute gura duten zinegotziari, eta horrek epe laburrean erantzungo die". Aldez aurretik, erabiltzaileek nortzuk diren esan beharko dute.

Bisitarien ezaugarriak ere

Egungo foroetan, bestalde, 20 partaide inguru ibili ohi dira gogotsu iritzia ematen, edozein gai dutela mintzagai. Ricardo Ibarra esan digu webguneak dituen bisitarien ikerketa zehatza urriaren azken egunetan ere egingo dela: "Aurrerokoari esker jakin genuen astelehena dela bisitari gehien dagoen eguna, eta goizeko lehenengo orduetan izaten direla bisita gehienak. Beraz, lantokietatik gehienbat egiten direla ondorioztatu genuen". ^m

Ugeragako txirindulariek

agur esan diote denboraldi oparo bati



Ugeraga Taldeko txirindulari batzuk

Emakumezkoen Tourra hiru aldiz irabazi duen Joane Somarriba handiak Ugeraga Txirindulari Taldean eman zituen lehenengo pedalkadak. Gaur egun, haren hatza jarraitu guran dabilta bertan etorkizuneko 52 txirindulari; 8 eta 19 urte bitarteko gazteak dira, eta kadete, gazte eta afizionatu mailetan lehiatzen dira. Txirindulari eskola ere badaukate, eta neskak ere badabilta.

Emilio Ramos sopoloztarra horien guztien arduraduna da; hiru urte daroaz Ugeragan, eta aurtun laugarren denboraldia bete du. Azaldu digunez, "ikasturtean zehar, asteburuetan da entrenamendua, ikasketak errespetatu gura ditugulako; ikas-

turtea amaitu ostean, ordea, ia egunero ibiltzen dira txirringaren gainean". Afizionatuen taldea aurtun sortu da gazte mailatik zetozen gazteak, "gora egin dezaten abagunea emoteko", diosku Ramosek.

Ugeragako txirindulariek irailaren azken egunetan eman zioten amaiera martxoan hasi zen denboraldiari: "Berehala oparoa izan da, eta etorkizunari begira oso itxaropentsu gaudu". Afizionatuek uste zuten baino emaitza hobea lortu dute Lehendakari Txapelketan; gazteek, berriz, lehenengo bost postuetan amaitu dute lasterketa asko; eta kadeteena garaipen gehien bildu duen maila izan da, "mundu guztia zur eta lur utzi du". ^m

GA
GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31



*etorri
eta
ikusisi!!*

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BARBIRULAU 5 BOS
erakusketak
antzerkia
dj.ak
ALGORTA

LAIK Taberna
Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Amerika zati bat herrian

80ko hamarkadaren hasieratik **Berangon dago** AEBetako Kontsuletzeko langileen seme-alabentzat ireki zuten American School of Bilbao

Berangoztar guztiek –edo ia guztiek– dakite euren herrian "amerikar ikastetxea" izeneko zerbait dagoela, baina beharbada gehienek gutxi gehiago dakite haren gainean. UK-k hara jo du, ez-jakite horregaz amaitzeko prest.

1967an, Ameriketako Estatu Batuek Bilbon zeukaten kontsuletzeko langileen seme-alabentzako eskola bat ireki zen Areetan, American School of Bilbao (ASB) izeneko. Gaur egun, AEBek ez daukate kontsuletzerik Bilbon, eta delako eskola ez dago Areetan, Berangon baizik, baina ABSk bere horretan dirau, hainbat aldaketagaz bada ere.

Connie Kirkland, sortzez Texastarra, duela bost urte hasi zen ASBn beharrean, eta orain bi hartu zuen zuzendaritza-kargua. Berria izanagatik ere, nahiko ondo ezagutzen du eskolaren historia, eta argibide batzuk eman dizkigu: *"Kontsuletzea itxi zutenean, eskola bertan bizi ziren atzerritarren umeentzat geratu zen. Gero, ordea, amerikar enpresa asko joan egin ziren hermenetik, eta eskola bertoko umeak hartzen hasi zen".* 80ko hamarkadaren hasieran gertatu zen hori, ASBk Berangoko bidea



Argazkian, Connie Kirkland, ikastetzeko zuzendaria

hartu zuen garai bertsuan.

Gaur egun, Euskal Herriko umeak *"ikasle guztien %80 inguru dira"*. Gainerakoen artean (320 dira guztira), ingelesak dira nagusi, eta badaude estatubatuar, danimarkarrak, argentinarrak, korearrak, japoniarrak... Gehienbat, enpresa multinazionalen seme-alabak dira. Berango eta inguruko herrietako ikasleak,


berri, 30 edo 40 izango direla uste du Kirklandek; *"gehiago etorri dira herria bera hazi ahala"*.

ASBn sartu gura duten umeek ingeles maila handia daukatela frogatu behar dute, ikasgai bi izan ezik den-dena hizkuntza horretan irakasten dute eta. Gainerakoan, ABSk eskaintzen duen irakaskuntzak ez dauka alde handirik hemengo ikastetxe arruntenagaz, Connie Kirklandek dioskunez. m

Xabier Rebollo > futbol entrenatzailea

Itzaleko lana

Andrazkoen Athletic B zuzentzen du Rebollok



Xabier Rebollo berangoztarrak astean lau bider dauka entrenamendua Lezaman

la bizitza osoa futbolari lotuta eman du Xabier Rebollo 34 urteko berangoztarrak. Gazte mailan Athleticen ibili ostean, 2. eta 2.B mailako hainbat talde-tatik igaro zen, noiz zorte onaz, noiz ez hainbeste. Azkenik, jokatzeari utzita, entrenatzaile titulua eskuratzea erabaki zuen, eta horretan dihardu.

"Kadeteetan eta gazte mailan talde batzuk zuzendu nituen", esan digu Rebollok, *"eta baita Bizkerreren emakumezkoen taldea ere. Duela urte bi Iñigo Juaristiren deia jaso nuen, ea emakumeen Athleticen bigarren taldearen ardura hartu gura nuen galdetzeko"*. Holan itxi

zuen Rebollok Lezaman hasi eta Lezaman amaitutako zikloa.

Talde nagusiak komunikabideen arreta bereganatzen duen bitartean, lan isila egiten dute Athletic B-n. *"Gure lana gizonezkoen Bilbao Athleticen egiten duen bera da: lehen talderako jokalaririk onak prestatzea"*. Hasi berria den denboraldiko talde txukuna prestatu ei dute: *"Bizkaiko jokalaririk gazte onenak ekartzen ahalegindu gara"*, diosku aisialdirako denbora gutxi edukiten duen gizon honen: *"Nire lantokitik Lezamara, handik etxera eta asteburuetan partiduak: Horra nire bizimodua"*. m




Lasterketa iragartzen duen kartela

MILIA, URRIAREN 4AN

Urriaren 4an (zapata) Berangoko Milla ezagunaren 16. edizioa izango da, Berango Atletismo Taldeak antolatuta. Ohiko lekuan egingo da –dagoeneko herriak "Milla" izena eman dion inguruan hain zuzen– urtero nazioarte mailako ospedun lasterkariak biltzen dituen proba hau. Edonork parte har dezake, ordea; horretarako, Udaletxera joan edo deitu behar da (94-668 00 08) irailaren 29aren eta urriaren 3aren artean. Lasterketa 16:40an hasiko da; ordu horretan abiatuko dira ume eta kadete mailako neskek, aurtengo Miliari hasiera emateko. Goi mailako atleten lasterketak, berri, 18:50ean eta 19:10ean hasiko dira, emakumezkoen eta gizonezkoen ataletan, hurrenez hurren.

IKASTARO BERRIAK KULTUR ETXEAN

Urtirik abendura bitartean, ikastaro berri bi opetziko ditu Berangoko Kultur Etxeak. Alde batetik komikigintza, eta bestetik, etxeko lanak norberaren kabuz egiten ikasteko lantegia izango dira aurtengo berrikuntzak. Biak 17 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta daude, eta urriaren 18an hasiko dira; komikigintzakoak abenduaren 20a arte iraungo du, eta Santa Anako Kultur Etxean izango da; etxeko lanena, berri, Berangoetako egoitzan egingo da urtarrilaren 31 arte. Zapatu goizez izango dira, 12:00etatik 14:00etara, eta izena emateko epea urriaren 15ean amaituko da.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI


- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurria.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen

deitu: 94 491 13 37

GOIZEAN



Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Gozoki eta prentsa,

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litzarreriak



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ
Teléfono: 946 761 128

Taberna Bern
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

krimea



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA

zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[herriak]

PLENTZIA

Txipio Bai-ri informazioa eman behar dio Udalak, EAEko Auzitegi Nagusiak aginduta



Auzitegi Gorena Txipioko ibarraren lursailen kalifikazioa zein den erabakitzen dabil

EAEko Auzitegi Nagusiaren epai batek Plentziako Udala derrigortzen du Txipio Bai naturaren aldeko elkarteari udal informazioa ematera. Elkarre horrek errekurtso bat aurkeztu zuen duela urte bi, herriko agintariak ez zi zielako erantzun gura egin zituzten 22 galderei; horien artean, Plentzian azken 20 urteotan eraiki diren etxebizitzaren kopurua galdetzen zuten Txipio Baiok.

Itzaki Ortigosa elkartearen kideak ontzat jo du epaia, eta dioskunez, "ez da irabazten dugun lehen auzia". "Honegaz jakinarazi gura diegu herritarrei edozeinek eskukibidea daukala eskatzen duen informazioa lortzeko". Ortigosaren berbetan,

erakundeak "ohituta daude" eskubide mota horiek saihesten, "herritarrok ez gaituztelako behar bezala errespetatzen".

Plentziako alkateak, berriz, Udala EAEko Auzitegi Nagusiaren epaia beteko duela adierazi digu. Alabaina, horrek aha-lerin berezia ekarriko luke, Nikolas Oñateren ustetan: "Persona bat kontratatu beharko genuke elkarteak eskatutako informazio guztia bilatzeko bakarrik"; izan ere, Txipio Bairen galdereak eskatzen zutena "gehiegizkoa" zen, azaldu digu alkateak. Dena den, 22 galdera horietatik, Udala lehenengo 19ak erantzutera derrigortuta dagoela dio epaiak, eta ez azken hirurak; beraz, "Txipio Baik ez du auzia erabat inbazi", diosku Oñatek.

Gatazka honen jatorria Plentziako Arau Subsidiarioen Aurrerapenean dago. Naturaren aldeko elkarteak uste du legezko baliorik ez daukan agiri horrek Saratxagako baserri-gunearen deuseztatzea gura duela. Egun, Aurrerapena geldiarazita dago, Espainiako Auzitegi Gorenak Txipioko ibarraren lursailen kalifikazioa zein den erabakitzen duen arte. m



Urriak 3 -19

[agenda]

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

GETXO

▶ **Ai, ama (euskaraz)**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokian. Urriak 17, barikua. 20:00. Hika taldearen eskutik.

▶ **Naiz**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. San Nikolas plazan. Urriak 17, barikua. 22:00. Gaitzerdi taldearen eskutik.

▶ **Mamutxak (euskaraz)**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Algortako Geltokiko plazan. Urriak 18, zapatua. 13:00. Kukubiltxo taldearen eskutik.

▶ **Muzikiren bidaia harrigarria**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Urriak 18, zapatua. 13:00 (gaztelaniaz) eta 18:00 (euskaraz). Pok Produksioak taldearen eskutik.

▶ **Las mujeres de verdad tienen curvas (gaztelaniaz)**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokian. Urriak 18, zapatua. 20:00. Ados Teatroa taldearen eskutik.

▶ **Venus attack (euskaraz)**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Algortako Geltokiko plazan. Urriak 19, domeka. 13:00. Sebastopoleko Tititeroak taldearen eskutik.

▶ **A, E, I, O, U**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Urriak 19, domeka. 13:00 (gaztelaniaz) eta 18:00 (euskaraz). Deabru Beltzak taldearen eskutik.

▶ **Mi suicidio (gaztelaniaz)**. XXI. Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokian. Urriak 19, domeka. 20:00. Tanttaka taldearen eskutik.

ERAKUSKETAK

BERANGO

▶ **Teresa Herreroaren "Presencias"**. Erakustaretoan. Urriaren 19ra arte.

ERANDIO

▶ **Arte kubatarra**. Udaletxeko erakusketa gelan. Urriaren 15era arte.
▶ **Verónica Domingoren olioak**. Erromoko erakusketa gelan. Urriaren 16tik 29ra.

GETXO

▶ **Maria Rosa Pelayoren olioak**. Erromoko erakusketa gelan. Urriaren 14ra arte.
▶ **Verónica Domingoren olioak**. Erromoko erakusketa gelan. Urriaren 16tik 29ra.

PLENTZIA

▶ **Yolanda Urkiagaren margolanak**. Goñi Portalen. Urriaren 15era arte.
▶ **Matilde Ruizen telarrak**. Goñi



LITERATURA

Hasier Etxeberria Algortan hizlari

Irakurzaleen Txokoak, Getxoko Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatzen duen ekimenak, laugarren denboraldia hasiko du datorren urriaren 8an, eta Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria izango dute lehen gonbidatuak; *Eulien bazka* bere azken liburuaren gainean egingo du berba Etxeberriak, Irakurzaleen Txokoaren ohiko bilgunean: Algortako Itsasgane Etxean, Karitateka kaleko lehen zenbakian.

Non: Algortako Itsasgane etxean • Noiz: Urriak 8, eguaztena
• Ordua: 19:30

Portalen. Urriaren 16tik 31 arte.

IRTEERAK

BERANGO

▶ **Nafarroa Oinez 2003 (Irunberri)**. Urriak 19, domeka. Irteera 9:15ean, itzulera 20:00etan. Izen ematea Kultur Etxean (94 668 21 43), urriaren 12ra arte.

PLENTZIA

▶ **Gorbeia mendira irteera**. Urriak 26, domeka. Irteera 8:00etan, itzulera 15:00etan. Izen ematea Goñi Portalen (94 677 55 41), urriaren 6tik 15era.

LEHIAKETAK

LEIOA

▶ **X. bideo lehiaketa**. Gaia askea izango da, eta lanak argitaratu gabeak eta beste lehiaketatan saritu gabeak izan beharko dira. VHS euskarriaren emango dira, eta gutxienez 4 minutu eta gehienez 11 irau beharko dute. Emateko epea azaroaren 14an amaituko da, 14:00etan. Emateko lekua: Leioako Kultur Aretoa, Sabino Arana 67, behe. Sari

Kultur Aretoa, Sabino Arana 67, behe. Sari banaketa, abenduaren 20an, Sakonetako Kultur Etxearen Erakusketa gelan, 12:00etan. Informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturleioa.com

MUSIKA

BARRIKA

▶ **Aguardiente Swing**. Golfo Norte tabernan. Urriak 4, zapatua. 23:00.
▶ **Rockadelica**. Golfo Norte tabernan. Urriak 11, zapatua. 23:00.
▶ **Blues de Luxe**. Golfo Norte tabernan. Urriak 18, zapatua. 23:00.

ERANDIO

▶ **Orquesta Galea**. Dantza egiteko musika. Josu Murueta plazan. Urriak 5, domeka. 17:30.
▶ **Udal Musika Banda**. Josu Murueta plazan. Urriak 11, zapatua. 13:00.
▶ **Orquesta Jamaica**. Dantza egiteko musika. Irailaren 23a plazan. Urriak 12, domeka. 17:30.

ZINEMA

PLENTZIA

▶ **El señor de los anillos: las dos torres**. Goñi Portalen. Urriak 11, zapatua. 17:00.

BESTERIK

GETXO

▶ **Kontularien Kluba (2003-04 denboraldiaren hasiera)**. Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Urriak 10, barikua. 19:00.

GORLIZ

▶ **II. Perretxiko Jardunaldia**. Iberre auzoan. Urriak 19, domeka. Goizean zehar.

namaika bide

1	Kafe Antzokia Bilbo
2	Kafe Antzokia Ondarroa
3	Ondarroako Arrigorri itsas ostautua
4	Algara konpartsa
5	Zaparrada Gaztegunea
6	Olgetan Umegunea
7	Elkartearen zerbiztu, ikastaro eta tailerrak
8	Bakaikuko etxea
9	Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10	Zenbat Gara aldizkaria
11	Gara argitalaritza

zenbat gara elkarte

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

namaika aukera

[albuma]



Zirgarien oroimenez

Joan den irailaren 20an, Getxoko hainbat taldek (Getxoko Antzerki Eskola, Jentilak, Berantzagi, Ondarreta abesbatza, Sasi-eskola eta Erromoko Otxotea) XIX. mendeko Getxora eroan gintuzten, *Zirgariak* antzezlanagaz. Antzezkizun eder batean, Abran gora eta behera itsasontziak tiraka mugiarazten zituzten andrazko haien lana eta bizimodua ekarri zituzten gogora, irudiotan islatzen ahalegindu garen legez.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Erabat txukun dauka bulegoa. Koadro pare bat, alaben argazkiak, liburu bat edo beste. Ordena maite duen pertsona dela salatzen dute objektuek. Bere kemenagatik, burdinaz eginda dagoela entzun diogu bati baino gehiagori. Baina burdina, denborarekin, ugertu egiten da, eta berak justu kontrakoa erakutsi du. Besteek estatistikak ikusten duten tokian, Jose Elorrietak pertsonak antzematen ditu.

Jose Elorrieta

Aldarrikapena lanbide

Testua: **Esti Ezkerra** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—2005ean antolatuko du ELAk kongresu nazionala. Ordua arte jarraituko duzu idazkari nagusia izaten.

—Bai. Hasiera batean kongresua datorren urtean egitekoak ginen, baina ekaineko ezohiko batzarrean 2005erako uztea erabaki genuen. Gutxi gorabehera, urte bete eta erdi gehiago jarraituko dut karguan.

—Eta ondoren?

—Gero... ikusiko dugu. Sindikalgintza-ren munduan ezin dira gauzak aldez aurretik jakin. Hemendik urte betera gerta daitekeenaz ikuspegi bat eduki dezakezu, baina tarte horretan, kontuak alda daitezke. Nire ustez, giro ona dago erakunde barruan, jendea oso motibatuta dago lanarekin, geure borrokarekin. Dena den, une honetan ondo egon arren, ahaleginak egin behar ditugu egoerak halaxe jarrai dezan. Azken finean, gure sindikatua bezalako proiektu sozial eta militante batean, kolektibo gisa jendea gustura egotea da gakoa.

—Dударik ez dago sindikatu jarduerak memento ona bizi duela Euskal Herrian.

Kanpoan ere harrিতa daude hemengo sindikatuen jarduerarekin. Zer dute euskal sindikatuak besteek ez dutenik?

—Euskal sindikalgintzak ehun urte inguru ditu; beraz, hor badago tradizio bat. Baina gauzak ez dira tradizioarekin bakarrik mantentzen. Zorionez, bai ELAren bai LABen historiak eta errealitateak Euskal Herrian sindikalgintzak dimentsio indartsua daukala adierazten dute.

“Egoera larrian dauden pertsonak datozkigunean, ezintasun handia pasatzen da”

Dударik gabe, indar handia da, eta zenbait punturen arabera baloratu behar da. Sindikatuaren lana, batez ere, langileen interesak babestea da. Baina ez diskurtsoan bakarrik; praktikan ere halaxe erakutsi behar du. Horrekin batera, abertzale moduan uste dugu ikuspegi nazional batetik begiratura sindikalgintza indartsua izatea eta haren inguruan militatzea ekarpen

ona dela. Hain zuzen, horregatik afiliatzen da jendea.

—Alabaina, alderdi jakin batzuek ez dute begi onez ikusten sindikatuak politika kontuetan parte hartzea.

—Ez da hemengo kontua bakarrik, mundu osokoa baizik. Adibide bat jartzearren, Alemanian eztabaida gogorra egin da sindikatuen eta gobernuaren artean. Politikari batzuek arlo politikoa gotorturik

egotea nahi dute. Hauteskundeak egin egiten dira, baina gero, joku politikoa jarduera estua da. Azkenean, alderdi politikoek bakarrik daukate politikan aritzeko aukera. Baina politikan parte hartzeko hainbat modu daude, eta gurea kontrabotereari loturik dago. Hau da, guk iritzi propioa daukagu, bizimodua antolatzeko tresnak ditugu, eta horrela egiten dugu



aurrera. Hori ikusita, kritiken aurrean politikari batzuk ezeroso sentitzen dira.

—**Bitxiak dira patronalak egindako adierazpenak. Sindikatu-jardueraren erruagatik hainbat enpresak Euskal Herritik alde egingo duela dio.**

—Beste topiko bat da hori, eta, aurrekoa bezala, ez da hemen bakarrik entzuten. Sindikatuaren aldarrikapenen eraginez, soldatek gora egiteagatik, enpresek lehiakortasuna galtzen dutela diote. Xantaia moduan erabiltzen dute. Baina lehiakortasunaren logikaren barruan, sindikatuaren erabakiak ez dira mugatzaileak. Artikulu batean irakurri dudanez, European, inbertsio eta garapen arloan, Alemania eta Frantzia dira diru gehien bideratzen dute-

—Arloaren arabera aztertu beharko genuke. Orain dela hogeituro urteko egoerarekin konparatuta, langabezia, esate baterako, jaitsi egin da. Baina, esan bezala, gazteen artean egoera okerragoa da. Sindikatuak aurre egin behar dio horri; horretarako dago. Azken finean, aldarrikapenak sindikatutik hobeto bideratu daitezke nor bere aldetik joanda baino. Esatera amerikar batek esaten duen bezala, sindikatuak indartsuago bihurtzen gaitu. Baina esatearekin ez da nahikoa. Gure lanean, emaitzak dira garrantzitsuak. Eta batez ere, garrantzitsua da jendeak hori jo eta ke zabiltzala ikustea. Nire ustez, militantziarako motibazioa hortik dator: borrokari zentzua ikustetik, sindikatua tresna egokia dela

zuen krisiak. Batez ere industria arloan langabezia oso altua zen, eta langileek beldur handia zuten. Alde horretatik, aldaketak egon dira. Lana egon badago (ez denontzat, tamalez), baina lan baldintzak okerrera joan dira. Arlo politikoan, aldaketa garrantzitsua gertatu da: hainbat alderdi eta sindikatu gabilza ikuspegi subiranista sakonago baten inguruan. Baina, nahiz eta horretaz hitz egiten dugun, subiranotasuna bultzatzeko indarrak biltzeko gai ez gara ematen du. Bestetik, erakundearen barruko langileak izugarri gazteago dira orain. Ez bakarrik afiliatuak; egituraren ere igartzen da adin aldaketa. Emakumeen kopuruak ere gora egin du. Eta jakina, norberarengan gertatu diren aldaketak hori daude. 37 urterekin hasi nintzen idazkari lanetan, eta orain 53 urte ditut.

—**Bizitza sindikatuari loturik igaro duzula esan daiteke.**

—Bueno, oraindik bizitza luzea izatea espero dugu. Sindikatu barruan, zuzendaritzako karguetan adin muga bat egotea erabaki dugu. Horren arabera, 58 urterekin utzi egin behar dira. Sindikatu batean indarra izateak garrantzia dauka. Gainera, aukerak eman behar zaizkiko jende gazteagoari. Kontuan hartu behar dugu lan merkatua aldatu egin dela, eta zuzendaritzan daudenek errealitate horri aurre egin behar

“Politikan parte hartzeko hainbat modu daude, eta gurea kontrabotereari loturik dago”

nak. Espainiako estatua, berriz, azken postuetan ageri da. Estatistiken arabera, %1era ez da heltzen beronen aportazioa. Lehiakortasuna mantentzeko, ezinbestekoa da inbertsio eta garapen arloa sustatzea. Bestetik, sindikatuak jendeak soldata hobeak izatea lortzen badute, horri loturik gastu ahalmena handiagoa izango da. Hau da, errenta banaketa orekatsua izatea ez da kaltegarria ekonomiaren funtzionamendurako. Kaltegarria enpresarien etekinei begira, baina ekonomiarako ez. Haien kexatu egiten dira, eta ez dituzte geure aldarrikapenak onartzen. Topikoari eutsiz, hemen ondo gaudela esaten dute. Baina langileen egoera ikusita gauzak ez daude hain argi. Adibidez, lanean dauden gazteen %52 prekarietatean dabil. Emakumeen artean, %40 dago egoera horretan. Geure aldarrikapenaren artean, beraz, lehenetsia daukate enpleguaren iraunkortasuna defendatzeak eta soldata diskriminazioa gutxitzeak.

—**Oro har, gauzak hobera doazela somatzen duzu?**

konprobatzetik.

—**Sindikatuak idazkaritzara iritsi zinenen zenezuzkan ilusioetatik gaur egungoetara izan duzue aldaketarik?**

—Gauza batzuk, duda gabe, aldatu egin dira. 1988. urte amaieran iritsi nintzen idazkaritzara, eta garai hartan, egoera ekonomikoa oso larria zen. 1993 arte iraun



diote. Konturatzen bazara, hor gaude, mugara iristear.

—**Ibilbidean zehar une ilunak eta argiak aurkituko zenituen. Bakoitzetik zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

—Adibide bat jartzearen, ilusio handiarekin hartu genuen Lizarra-Garaziko hitzarmena. Une txar bat, ETAK su-etena hautsi zuenean. Arlo sindikalean, greba bat irabazten baduzu momentu ona da, eta galtzen duzunean, edo lan prekarioak gure gizartean zer pisu duen ikustekoan kezkatu egiten zara. Gure lanbidean, langabezia hitz egiten denean pertsonak etortzen zaizkigu gogora. Egoera larrian dauden pertsonak. Haietakoren bat bere egoeraren berri ematera joaten zaizunean, ezintasun handia pasatzen duzu. Ezintasuna bera zein

nen gaizki pasatzen ari den ikusi eta ezin duzulako ezer egin. Baina, nahiz eta une gogorrak igaro, baikor izan beharra dago. Baikor izateak indar handiagoa ematen dizu. Ez da sasibaikortasuna saltzea, baizik eta adorea ematea. Errealitatea dagoen moduan, ez da ilusioa galdu behar.

—**Idazkaritza uzterakoan zer oroitzen eramango ditu berarekin Jose Elorrieta?**

—Balorazio bat egitekotan, halako konpromiso bati zeure denbora eskaintzea merezi duela esango nuke. Bizitzeko hainbat modu daude, sindikalista izatea da haietako bat. Ez dakit ona ala txarra den, baina orain arte, behintzat, ez dut inoiz esan sakrifizio handia eskatzen duen kontua denik. Ez, ez da sakrifizio bat. Ez dauka zentzurik gaizki pasatzeak. Ondo

pasatzea da lan egitea, ilusioa izatea, borrokatzea. Gauza txikiak lortu arren, haiek baloratzen jakitea. Eguneroko emaitzek ematen diote gure borrokari zentzua. Batzuek pentsa dezakete fribolitate dela, baina sindikalista batek bere lanari zentzu bat ematen dio, eta zentzu hori aberasgarria da. Ni neu, sindikalismoari esker bizi egin naiz. Azken finean, horixe da garrantzitsua: bizirik egotea.

—**Desio bat?**

—Lanean elkarrekin aritzeko, abertzale guztiok gutxieneko jarrera mantentzea. Hori egin ezean, ahulagoak izango gara eta pausuak ematen jarraitzeko ditugun aukerak ez ditugu harrapatuko. Gure herrian, jende gehienak horixe nahi duela uste dut. m

ZER DA GEHI?

GEHI: Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena Getxoko Udalak, Bizarra Lepoan Euskara Elkartek eta herriko 23 gazte elkarten sinatutako hitzarmena da. Gure helburua aisialdiaren eta gazteen esparruan euskara bultzatzea da.

EUSKARA SUSPERTZAILEA

NOIZ: larunbat goizetan 9:00etatik 13:00era
urriak 18-25 eta azaroak 8-15.

NORENTZAT: astialdiko begirale, dinamizatzaile, haur eta gazte saileko arduradun edo koordinatzaile, galarekiko interesa duen edonorentzat.

EDUKIAK:

- Soziolinguistika.
- Astialdiaren eragina euskararen garapenean.
- Euskal jolasak eta haur kantak.
- Plan estrategikoen zenbait programen ezagupena.
- Programazioak egiteko baliabideak.

NON: Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen egoitzan (Karitate kalea 1, sotoa).

OHARRA: Ikastaroa doakoa izango da. Hala ere, 20€ eskatuko dira ziurtagiri moduan. Ikastaroa bukatzean bueltatuko dira.

BEGIRALE IKASTAROA

NOIZ: 2 urte: 2003-2004 urritik maiatzera 2004-2005 urritik maiatzera

NORI ZUZENDUA:

- Asti taldeetan lanean ari den edo arituko diren begiraleak.
- Bere lana gauzatzeko oinarritzko heziketa bilatzen dutenak.
- Ario honetan hasi nahi duten esperientziarik gabeko pertsonak.


SARTZEKO BALDINTZAK:

- 18 urtetik gora izan beharko duzu edo 18 urte bete beharko dituzu matrikulazio urtearen barruan eta, beti ere, praktikak egiten hasi baino lehen izan beharko duzu aipatutako adin hori.
- Getxoko aisialdi talde bateko partaide izan beharko zara, hala ez bada, Getxoko aisialdi talde batean izena eman ezazu.

PRAKTIKAK: Getxoko aisialdi talderen baten egin beharko dituzu.

AGIRIA:

- Ikastaroa bukatu ostean Eusko Jauriritzak homologatutako diploma jasoko duzu.
- Ikastaroaren kostua Getxoko Udalak diruz lagunduko du: lehenengo urtean %25 eta bigarren urtean lehenengo urtearen beste %25 eta bigarren urtearen %50.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
(Teresa Zarraga)
Karitate kalea 1, 10. bulegoa
48991 Getxo.
Tel: 94 491 43 57
bizarralepoan@euskalnet.net

[erreportajea]

Delitugintza gure gizartean guztiz txertatuta dagoen gaitza da. Luze joko luke hemen horren zergatiaz eta desager-tarazteko har litezkeen neurriez jardutea, eta ez da gure helburua gainera. Uribe Kostan delitu asko ala gutxi egiten den jakiteak -eta zuei esateak- beste asmorik ez gaitu mugitu erreportaje hau osatzeko, eta horretarako aprobe-se-na iruditu zaigun lekura jo dugu: Getxoko guardiako epaitegira. Hantxe ipini behar dira gure eskualdean ipintzen diren salaketa gehienak, eta horrek iturri ezin hobea bihurtzen du guk orain argitu gura duguna argitzeko. Hona hemen bertako langile batzukaz edukitako elkarrizketaren emaitza.

Lasai ibiltzeko moduan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Metroa gatazkatsua ei da asteburu gauetan; irudian, bertan egindako miaketa bat

«Garaje eta etxebizitzetan egoten da lapurreta gehien, bortxa gabekoak ia beti»

Ingurundasaian bizi gara. Gureak ez du zerikusirik estatubatuar filmetan agertzen diren New York-eko auzune liskartsu horiekaz, ez eta, konparazioa askoz hurbilago egiteko, Bilbo edo Barakaldogaz. Hori ulertzen da, behintzat, C.V.C.k eta I.L.B.k, Getxoko Auzitegiko langile bik, guardiako epaitegiaren jardunaz esan digutena entzunda.

Getxoko Auzitegiak Uribe Kosta osoa hartzen du bere gain, Erandio izan ezik, eta baita Mungia aldeko hainbat herri txiki ere (Maruri-Jatabe, Gatika...). Auzitegiaren barruan sei instrukzio-epaitegi daude, eta horietako langileei dagokie, aste banako txandatan, guardiako epaitegiaren ardura. Gure berbakide C.V.C. eta I.L.B.ri ere lan hori egokitzen zaie lantzean behin, eta gai-

nera badaukate nahikoa eskarmentu Ge-txon: lau eta hamaika urte daroetz, hurrenez hurren, Uribe Kostako delitugintzagaz harreman zuzenean.

Dioskuenez, delitu larriak ez dira bate-re arruntak inguru honetan. Hilketa bat urte luzez gogoratzen den gertakaria da; bortxaketa bat gutxitan gertatzen da (edo gutxitan salatzen da behintzat), eta lapurre-tak, izatekotan, bortxakeriarik gabekoak izaten dira ia beti. Gauzez kaletik lasai ibil gaitzeko, oro har, baina horrek ez du esan gura, inondik inora, justizia-administrazio-ko langileak lan faltan dabilzanik.

“Arazo gehienak familiaren barruan sortzen dira hemen”, azaldu digu I.L.B.k. “Azken boladan, gainera, gora egin du emaz-teek senarren aurka ipinitako salaketan

kopuruak, erasoak direla eta”. Gaiaren inguru-ruan plazaratu diren lege berriek zerikusia daukate horretan, antza, emakumeak gehiago babesten dituztelako lehengo lege-en aldean; horrez gain, bada beste faktore bat C.V.C.ren ustez: “Etorkin asko ailegatu dira, eta horien artean hedatu samar dago, dirudienez, senarrak emaztea jotzeko ohitu-ra. Hegoameriketako andra pilo baten sala-ketak jasotzen gabiltza hori dela eta”.

Zapatu gaueko “beroa”

Esan dugu lehenago lapurreta bortitzak ez direla batere ohikoak hemen, baina beste-lakoa da bortxarrik gabekoaren kasua. “Garajeetan eta etxebizitzetan egoten da la-purreta gehien”, dio I.L.B.k, “Artea merka-taritzaren gunean ere bai, eta udan, hondartze-

«Emazteek senarren aurka ipinitako salaketan kopurua handitu egin da azken boladan»


tan. Hori betidanik egon da, baina lehen droga-hartzaileak ziren lapurrak, eta orain, etorkinak batez ere”.

Bestalde, eta bortizkeria nagusi ez bada ere, borrokaldiak egon badaude, asteburu gauetan eta alkoholaren “laguntzaz” batez ere. Guardiako epaitegian dabilzanen ar-bera, badaude gure eskualdean halako ger-takariak sarriago izaten diren leku jakinak: “Metroan arrunta izaten da jendea ‘berot-zea’, askotan segurtasun-guardiak tartean dabilzala. Diskoteka handiak ere oparoak dira borrokaldietan, The Image eta Nick’s batik bat, baina azken boladan bareago dabilza”. Askoz gehiago ere esan digute I.L.B.k eta C.V.C.k baina, zoritxarrez, ez daukagu denerako lekurik. Gura baduzue, salaketa bat ipini ezazue gure kontra. m

Denetariko salaketak

Guardiako epaitegia hamaika pasadizoren lekukoa izaten da. Gugaz berba egin duten epaitegiko langile biek dioskuenez, salaketa bitxi samarrak izaten dira behin baino gehiagotan. “Niri, behin, gizon bat etorri zitzaidan”, kontatu digu C.V.C.k, “bere etxearen gainetik abioiak igarotzen zirela salatzeke. Loiuo aireportuaren aurkako salaketa ipintzera zeterrela pentsatu nuen, eta alde zuzenetik ohartarazi nion ezer gutxi lortuko zuela bide hartatik. Berak, ordea, zera erantzun zidan: etxean ez ezik, abioiak edonon zegoela igarotzen zitzaizkiola gainetik. Mendian, kalean... edonon. Ni, ordurako usaina hartuta, txantxetan hasi nintzaion, ‘beria salatu beharko dugu orduan’ eta antzekoak esanez, eta hara non abioi bat igaro zen gure gainetik. Sekula gertatu ez zena! ‘Ikusten?’ esan zidan. Orduan neuk ere heldu nion ildoari, CESID tartean ibiliko zela eta halakoak esanez”.

CESID edo zerbait okerrago ere ez zen urrunegi ibiliko I.L.B.ri jasotzea egokitu zitzaion salaketaren kasuan: “Emakume bat etorri zen, aurretik kalean oihuka ibili zena, ‘Sumario-sekretuari ez’ esanez. Bere amaren eta psikologo talde baten aurka ipini gura zuen salaketa, bere bizitza publikoki aditzera ematen zebiltzalako. Izan ere, gizarte osoak plan maltzur bat zeukan beraren bizimodua ezagutarazteko; edonora jarraitzen zioten, kamera ezkutuz eta guzti. Eta ez pentsa gizakiok ginenik errudun bakarrik: katu eta txakurrek ere ‘konspirazioan’ parte hartzen ei zuten”. Gaztelaniaz esaten den bezala, guardiako epaitegira eroateko moduan daude batzuk.



Juan Luis Markaidaren irudiak

Beti kamera aldean dabil Juan Luis Markaida argazkilaria algortarra. Lehenago ere, bere lanak argitaratu izan ditu aldizkari honetan. Utzi digun irudi-sorta honek ederto erakusten du bere begiradaren zorrotzasaña.

Argazkiak: **Juan Luis Markaida**

ABANDO-IBARRA ETA DEUSTUKO TIGREAREN ETXEA, BILBO. 2003.



LANDETAKO HONDARTZA BATEAN, FRANTZIA. 1990



KALE NAGUSIA, BILBO. 2003




DAGOENEAN BON-BON, EZ DAGOENEAN EGON, PARIS. 1986.



SHOP ON-IN, BILBOKO KALE NAGUSIA. 2002.



TRAIN&WAGONS, BILBO. 2002.



...REKIN GORA ETA BEHERA, KATHMANDU, NEPAL.1985.



GOITIBEHERA GOITIK BEHERA, BILBOKO ASTE NAGUSIA. 1999.

zineeskola

Oskar Fernández

Zinemagintzan
abiadurak
izan duen
garrantzia

Gaur egun edonork ondo baino hobeto daki film baten euskarian edo pelikulan fotograma estatikoak baino ez daudela. Baina fotograma huts horiek abiadura hartzen dutenean -24 fotograma segundoko zehatz esanda-, pantallan agertzen zaigu zinemaren magia osoa. Jakina, hau ez da beti horrela izan: egin dezagun denboran atzera apur bat, hogeigarren mendearen hasieran kokatzeko. Garai hartan filmak zuri beltzez, soinurik gabe eta 16 segunduko fotogramatan grabatu eta proiektatzen ziren. Eta zalantzarik gabe abiadura horren bidez (16/s) gaur egun bezalaxe errealitatearen irudia berdin berdin agertzen zen ikusleen begietara. Beraz, zer dela eta eman zaie sarritasun handiagoa fotografeei, zehazki zortzi fotograma gehituta? Erantzuna nahiko sinplea da: 16/s abiadura nahikoa zen mugimendua ispiatzeko, baina 1929. urtean soinudun filmak sortzen hasi zirenean, agerian geratu zen soinua seinaleak aktoreen ezpaintedako mugimenduekin batera joan zitezela abiadura gehiago behar zela, 8 fotograma gehiagokoa hain zuzen ere. Hala ere, aldaketa hau ez zen izan alde guztietatik onuragarria: Nork ez ditu gogoratzen antzinako film komikoak eta haien protagonistak? Harold Lloyd, Buster Keaton, Stan Laurel eta Oliver Hardy, eta guztien gainetik izar disdiratsua eta haundi bat, Charles Chaplin. Halako aktore batzuek beren filmen zuzendari ere baziren, bai eta gidaien idazle, eta guztietan abiadura 16/s izaten zen. Baina, eta hau da kontua, gaurko proiektoreen abiadura 24/s denez gero, mugimendua askoz arinago doa: pertsonaien mugimenduak, kaleko korrikaldiak, kotxeen joanetoriak, elkarrizketak eta abar guztiak jatorrizko bertsioan baino askoz lasterrago ikusten ditugu, eta jakina, emaitza ez da inondik inora egile handi haiek nahi eta pentsatu zutena. 4

Ahotsak bikoizten

Hollywood-eko aktoreek euskaraz egiten dute Txema Regalado moduko bikoiztaileei esker

Baliteke batzuentzat aurpegi ezezaguna izatea, baina Algortan bizi den Txema Regaladok berba egiten duenean, bere ahotsa bai egiten zaigula ezaguna gehienoi; izan ere, orain dela 43 urte Salamancan jaio zen mosketero itxurako gizon hau bikoizlea da. Zori hutsez hasi zen mundu horretan, Berangon antzerkigintzan zebilela: “K-2.000 ahots berrien bila zebilen, eta kristoren casting-a antolatatu zuen; hara joan nintzen eta, beno, hartu ninduten. Harrezkeroztik, 15 urte igaro dira”.

«Askoz zailagoa da
aktore kaskarra
bikoiztea ona baino»

Regalado *Oliver eta Benji* marrazki bizi-dunetako pertsonaia bat bikoiztuz hasi zen; alabaina, ez du gogoratzen zein izan zen bikoiztu zuen lehendabiziko aktorea, “beharbada Rudolph Nureyev edo Denzel Washington izan ziren”. Dioenez, “askoz zailagoa da aktore kaskar bat bikoiztea ona baino”. Bere ahots sakona (baina aldi berean gozoa) dela-eta, apur bat oinazetuak dauden pertsonaiak egokitzen zaizkio, “harropuzak edo galanak baino. Eta beltzak ere –ez dakit zergatik– niri tokatzen zaizkit”.



Txema Regalado bikoizlea

Euskaraz zein gazteleraz behar egiten du, baina erosoago ibiltzen da gazteleraz bikoizten: “Hizkuntza horretan dena dago finkatuta, eta azentuen kontua badakizu zelakoa den; hau da, mexikarrarena egin behar baduzu, badakizu zelan egin, baina mexikar batek zelan egiten du euskaraz?”. Txema Regalado Madrilen ere aritu izan da beharrean, eta azaldu digunez, “Euskal Herrikoek maila ona daukate”. Beraren us-tetan, bikoizleak aktoreak ere badira: “Guk ez dugu testua aktorearen ahoan sartzen bakarrik; gure lana trebetasuna da, ofizioa %90ean, eta interpretazioa, %10ean”. m

Ez galdu > “Abajo el amor”



Peyton Reed zuzendaria

Komedia jostagarri, azkar, koloretsu eta atsegin hau hirurogeigarren hamarkadan Doris Day eta Rock Hudson aktore ospetsuek egindako hiru filmetan oinarritzen da. Renée Zellweger, (*Chicago*) eta Ewan McGregor (*Moulin Rouge*) ditu protagonista lanetan. Zuzendari, berri, Peyton Reed. Hau du zuzendari horrek bere bigarren film luzea. Garrantzi handia daukate protagonisten elkarrizketa zorrotzek filmean garatzen den istorioan: “Abajo el amor” libuarekin, Barbara Novak-ek (R.Z.) lehenengo postua lortu du New York-eko liburu salmentan. Liburu honek, gainera, bultzada handia eman die emakumeen aldeko hainbat irizpide eta ideari. Catcher Block kazetari izarra, baina, prest dago liburuak zabaltzen dituen ideia aurrerakoiak oker direla frogatzeko. Peyton Reed zuzendariak film borobila lortu du bai edukiaren aldetik bai itxurarenetik.

Erradiografia > Stropajo



Stropajo taldeari ikuskizuna eskaintzea gustatzen zaio kontzertuetan

Nondik datorren izena: Lehen *Los Molly* deitzen ziren, baina abeslaria eta bateria-jolea joan zirenean aldatu egin zuten izena. **Noiz hasi ziren:** Aurreko taldeak zazpi urte iraun zuen, eta berriagaz duela urtebete-edo hasi ziren serio jotzen. “Guztiz autodidaktak gara, eta musika tresnak jotzen jakin barik hasi ginen”. **Taldeko kideak:** Patxi (ahotsa eta gitarra), Mikel (gitarra), Kepa (baxua) eta Asier (bateria). **Gustukoa dute:** “Bakoitzak bere enaginak ditu; hala ere, punk joerak dituzte nagusi: Toy Dolls, Dictators edo Cocksparrers. Bai eta gure inguruko klasikoak ere: La Polla, Cicatriz... Ez dakigu jotzen

dugun musika definitzen, baina helburua geure soinua lortzea dugu”. **Eginiko diskoak:** Abenduan lehen maketa grabatzeko asmoa daukate, “ea zer egiteko gai garen ikusteko, eta ondoren hori mugitzen hasteko. Dena den, zuzenean jotzea gustatzen zaigu”. **Besteak beste, jo dute:** Uda honetan Gorrizen, Lar-rabasterran, Leioan, Urdulizen, Erandion eta Bilbon, eta *Aste Nagusian kalean jo genuen*. **Euskal musikaren egoera:** “Orain dela 20 urte baino aukera gehiago dituzte taldeek; alabaina, talde asko dago, eta ez dago denontzako lekurik, ezta entseguak egiteko aretorik ere”. m **605 715 285 (Patxi)**

diskoak

Txikitxuterik
Iker Goenaga
Elkar



Hainbat musikariagaz jo ostean, Zizurkilen jaio zen trikitilari gazte honek bigarren diskoa ateratu du; aurrekoa, 1998an kaleratu zuen *Soinugorri* izenburupean, eta Goenagaren lehenengoa izan zen bakarlari moduan. Lan berri honi basoen udazkeneko usaina dario: doinuak freskoak eta naturalak dira, eta abestiak, berri, sinpleak bezain onak.

Loose screw
The Pretenders
Artemis Records



Datorren urtean 25 urte beteko ditu Chrissie Hynde karismatikoa zuzentzen duen talde britaniarrak, new wave garai hartatik bizirik dirauen ia bakarra. Aurten zortzigarren diskoa egin dute Martin Chambers bateria-joleak, Adam Seymour gitarra-joleak, eta Andy Hobson baxu-joleak; Hynde-z gain, eurak dira egungo taldekideak.

Lipstick traces
Manic Street Preachers
Sony Music



Duela hamar urte baino gehiago laukote moduan hasi zen Erresuma Batuko hirukoteak gorroto zein amodioa sortarazten du; hala ere, ezin da ukatu nor-tasun handiko taldea dela eta berezko soinua daukala. CD bikoizt honetan abestien B aldeak, bitxikeriak eta bertsio harrigarriak eskaintzen dizkigute.

Musika >
Muguruzarekin
elkartasuna

Ondo jakina denez, Fermin Muguruzak eta Manu Chaok *Jai/Alai Katumbi Express* biraren barruan Malagan eta Murtzian egin behar zituzten emanaldiak bertan behera geratu ziren, Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) Muguruzari egin zizkion salaketak zirela-eta. Horren ondorioz, kulturaren arloko 300dik gora pertsona eta talde ezagunek agiri bat sinatu dute, Muguruzak eta Chaori elkartasuna adierazteko.

Bertan, gertatutakoa “kulturaren eta arrazoaren aurkako eraso eta injustizia” dela salatu dute, bai eta gogor kritikatu “hainbat komunikabidek zabaldu duten gezurren eta akusazio faltsuen marea beltza”. Honoko hauek dira agiriaren sinatzaileetako batzuk: Manuel Vázquez Montalbán idazlea, Ignacio Ramonet kazetaria, Fernando León de Aranoa zinemagilea, Guillermo Toledo aktorea, Carlos Tena musika kritikaria, Lluís Llach abeslaria, Gran Wyoming musikaria eta aurkezlea eta Joan Subirats politologoa, besteak beste. Hala ere, beste toki batzuetan ere aurkitu dute aurkakorik Muguruzak eta Chaok: AVT-k eta Kataluniako Herritar Bizikidetzak plataformak irundarraren aurkako salaketa aurkeztu dute, Rubi herrian egindako kontzertuan Sarri sarri kantua abestu zuelako.

Informazio gehiago:
www.musikametak.com/EUSK/HASIERA.html

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (VI)
Egoscorkeria

2003ko urria. Ez dut eguna zehaztuko, urteurrenek berez baitute zentzia. Goiz jeiki zara gaur, eta ni ez esnatzen ahalegindu zara. Horrekin ez dut esan nahi gainerako egunetan hain arduratsua ez zarenik, baina egin behar zenuenak erabateko konfidentzialtasuna eskatzen zuen. Kalera ateratzen imajinatu zaitut, aterkia zabaldu eta bidean aurkituriko putzuak ez zapaltzeko saihesbide berriak marrazten. Okindegira iritsitakoan, buruz errepasatuko zenituen erosi beharrekoak: hainbeste gustatzen zaizkidan croissant-ak, palmeratxoak zuretzat, bestelako litxarrikeriak... Eta, zu ezagututa, ziur gutxi irudituko zitzaizula hain egun handia ospatzeko.

Elkar ezagutu genuen urtea. Zenbat urte igaro diren orduz geroztik. Kostatu zitzaizun ni konkistatzea, halaxe errepikatzen diezu zure lagun guztiei. Baina nik bestelako oroitzapenak dauzkat orduko gertaeraz. Berdin du. Garrantzitsuena da elkarrekin amaitu genuela. Astero biltzen ginen kafetegi berean. Oroitzapenek garai haietara garrantzitsuena nauten guztietan, bi irudi datozkit gogora: nola katiluetatik ateratzen zen lurrin mikatzak masailak berotzen zizkigun, eta zeu Nerudaren poemak ozen irakurtzen. Urteak aurrera doaz; aspaldi utzi genion kafetegi hartara joateari. Jada ez dizkidazu Nerudaren poemak errezitatzen, Neruda bera ez da existitzen. Lehen bezain maitemindurik gaude, bai, baina egunerokotasunaren aurrean egoskor samarrak izan garela gertatu da hori. Agian txiletarrak beraiek egoskorragoak izan balira, Nerudak beraien artean jarraituko luke. Ez fisikoki (gaixotasun batek eraman zuen bizimodu "hobe" batera), baina bai mentalki. Egunkari batean irakurri dudanez, kanpoan Txilen baino hobeto ezagutzen dute Neruda. Komunista porrokatua izan zenez, Pinocheten erregimenak bere esku zegoen guztia egin zuen poeta herritarren oroimenetik ezabatzeko. Arinegi esan dut egoscorkeriarena. Zeuden egoeran, bizimodua aurrera ateratzearekin nahikoa zuten txiletarrek. Orain, 30 urte geroago, Nerudarekin zuten zorra kitatzeko aukera daukate. Inoiz ez da berandu. 4

Literatura dantzan

Getxoko SHK argitaletxe berriak arte eszenikoen gaineko liburuak kaleratuko ditu

Sylvia Fuentes arkeologian lizentziatua, soziologian doktoratua, dantza ikertzailea eta ingeles itzultzailea da; horretaz gain, gustuko ditu Shakespeare-ren liburu guztiak. Izan ere, benetan gogoko du kultura anglosaxoia: "AEBetan eta Ingalaterran bizi izan naiz, eta gainera liburuak ingelesez bakarrik irakurtzen ditut". Oraindik kaleratu ez diren sei edo zazpi antzezlan ere idatzi ditu Fuentesek.

Bere zaletasun nagusiak (literatura eta dantza) bat egin ditu Getxon sortu berri duen SHK izeneko argitaletxean, "horrela deitzen da Shakespeare-ren laburdura delako". 1999an bururatu zitzaion ideia, "dantza mundua ikuspuntu akademiko batetik ikertzen nabilela". Helburua arte eszenikoen inguruko liburuak argitaratzea da, "batez ere, dantzaren ingurukoak".

«SHKn itzulpenak eta testu bildumak ere egiten dituzte»

Sylvia Fuentesek dioskunez, gai horretaz bibliografia asko dago ingelesez, eta SHKren bidez, "horiek guztiak hurbildu gura dizkiet ikasle, irakasle, dantzari eta koreografoei"; AEBetako eta Ingalaterrako argitaletxeakaz harremanetan ipini da liburuok itzultzeko bai-




Sylvia Fuentesek antzezlanak ere idazten ditu

mena eskatzeko. 31 urteko gazte honek dantzaren gaineko lanak idaz ditzaten ere eskatuko dizkie dantzari, ikertzaile eta profesionali.

SHK-k badauka beste atal bat ere, argitaratze-zerbitzuena, hain zuzen; hor itzulpenak, testu bildumak eta dokumentazio zerbitzu bat egiten diharduten 6 kolaboratzaile dabilta. Fuentesek atal hori internet-en bidez garatzea gura du: "Ea urtea amaitzen deneko lortzen den, argitaratzaile lanean arreta guztia ipintzeko". m


Harremanetarako: sylvia@bilbao.com

liburuak



Hodei berdeak
Jokin Alonso
Susa

Mural zabal bat margoturik ikusiko dugu Jon Alonso iruinearen seigarren lan honetan, 60. hamarkadako azken urteetan Iruñeko abertzaleen giroa agertzen duena. Joseba Jaka III. Literatur Beka jaso du nobela honek.



Ekialdekoak
Anonimoa
Hiria

Mila eta bat gauetako ipuinak kontakizunetatik aterata dauden zenbait ipuin arabiar itzuli eta bildu ditu Xabier Galarretak liburu honetan. Geratu gura al duzu gauez berandu arte ipuin magiko hauek irakurtzen?

Urrunerako aginte-tresna >

Boterea ikusleen eskuetan

Telebistaren kateak aldatzen dituen aparatua 1950ean asmatu zen

Hezur alferrak -Lazy bones-. Benetan izen aproposa ipini zioten ingeniariak lehenengo urruneko aginte-tresnari. 53 urte igaro dira, eta harrezkeroztik telebistaren aurrean boteretsu sentiarazten gaituen aparatua hori egongelako errege eta eztabaida askoren jatorri bihurtu da. XX. mendearen lehen erdian aginte-tresnak baziren arren (garajeen atak zabaltzeko, adibidez), 50. hamarkadan hasi ziren etxetara sartzen.



Zapping-a egiteko behar den tramankulua

«Egungo aginte-tresnek izpi infragorriak erabiltzen dituzte»

1950ean Zenith enpresa amerikarrak telebistarako lehen aginte-tresna asmatu zuen; ez zen oso baliagarria izan, ordea, garai hartan katea gitxi zegoelako, eta oso ohikoa zen gainera jendeak kableguz estropezu egitea. 1957an Robert Adler-ek "space command" izeneko aparatua sortu zuen, baina horrek ere arazo bat zeukan: ultrasoinuak erabiltzen zituen, kate bat aldatzen zenean, aldi berean bizilagunare-

na ere aldatzen zen; hala eta guztiz, 25 urtez erabili zen (garestia bazen ere). Azkenik, 80. hamarkadaren hasieran gaur egun erabiltzen jarraitzen dugun teknologia sartu zen, izpi infragorriena, hain zuzen.

Hortaz, gero eta ekipamendu gehiago daukagu egongeletan (bideoa, musika-katea, DVDa,...). Ondorioa zein da? Hiruzpalau aginte-tresna egongelako mahaitxoan, eta bakoitza 20 botoigaz; behar-bada horregatik, zabaltzen doaz orain aparatua horiek guztiak kontrola ditzaketen aginte-tresna unibertsalak. m

Entzun >

Faktoria

Irailaren 15az geroztik, Euskadi Irratiko entzuleek magazine hau entzuteko aukera daukate, goizeko hamarretatik ordu bata arte. Ez dauka erronka erraza zabaldu berri den Faktoria-k, irratsaio historiko baten lekua bete behar du-eta: Goizean behin. Hasi zenetik -orain hamalau urte- 3.000 saiora heldu zen aurtongo urtarrilean. Gaurkotasuna du ardatz Faktoria-k, eta bi esatariren ardurapean dago: Susana Mujika lanegunetan, eta Garikoitz Udabe asteburuetan; biak txandaka jardungo zaizkigu, beraz, mikrofono aurrean urte osoan.

Irakurri >

Bertsolari



1991n atera zen kalera, bertsolari eta kazetari bertsozale taldetxo baten eskuetik, hemen aipagai dugun aldizkariaren lehen zenbakia: Bertsolari zeukan -eta dauka- izena, eta beraz, eta esan beharrik ez dago zeren gainean diharduen.

Bertsozale Elkartearen inguruko lagun ospetsu ugari bete ditu, aldizkaria sortu zenetik, Bertsolari-ren orrialdeak: Andoni Egaña, Jon Sarasua, Joxerra Garzia, Laxaro Azkune, Kristina Mardaras... Testuei adinako garrantzia ematen diete diseinuari eta irudiei, eta gaiak modu ausartean lantzen dituzte, gai serio eta arinen arteko oreka bilatuz beti ere. Urtean lau bider kaleratzen da.

Harremanetarako: 636 868 847

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Gure espezieak >

Trikua



- **Izen generikoa:** Erinaceus europaeus
- **Izen arrunta:** Triku arrunta. Gure eskualdean, kirikolatsa esaten zaio.
- **Berezitasunak:** 27 zentimetroko luzera eta 400 gramoko pisua
- **Bizilekua:** Landazabalak, basoak...

Ugaztun intsektujale honek duen itxura benetan berezia da, eta beraz, berehala ezagutuko dugu bat ikusiz gero: potoloa da gorputzez, txikerak dauzka hankak eta arantza zorrotzez estalia bizkarra (sabelaldea, ordea, ilez). Beldur denean, bere burua arriskuan ikusten duenean, edo eraso egiten diotenean, triku biribilkatu egiten da arantzeko bola bihurtzeraino; horrela (arantzen azpian) babesten ditu burua eta sabelaldea.

«Trikuaren araldia apirilean hasi eta abuztuan amaitzen da»

Bere arrastoek esku txikerren antza daukate, baina hatzamar eta azazkal luzeakaz. Atzean uzten dituen gorotzak bidezidorretan aurkituko ditugu sarri: itxura aldetik txikerak, beltzak eta apurtxo bat deseginak; aipatzekoa da horietan artropodoen hondar ugari ageri direla.

Gau euritsu eta hezeetan erraz topa daitezke laguntxo arantzatsu hauek erripideak gurutzatzen, edo hauen inguruko zelai eta lorategietan jatekoa bilatzen: Galea, Neguriko lorategiak eta Algortako Usategi parkea dira horretarako tokirik aproposenak. Hala ere, gero eta triku gutxiago daude, berdeguneak murrizten doazelako, eta trafikoa gero eta ugariagoa delako; izan ere, horietan dituzten "etsai" nagusiak: bizileku egokien galera eta autoak, horien gurrilpean amaitzen dute-eta triku askok.

Urritik martxora lozorroan sartzen da, baina udaberriagaz batera (apirilaren aldera edo) berriro ekiten die bere jardueri; orduan hasten du, adibidez, abuztura arte luzatzen den araldia.

40 UK

Gaia > sakeleko telefonoetako antenak

Kutsatzen dute ala ez?

Azken urteotan **polemika bizia** sortu da **sakeleko telefonoetako** antenen inguruan

Sakeleko telefonoek seinalea jaso ahal izateko ipintzen diren antenek osasunari egin diezaioketen kaltearen gaineko ikamizko muturretako iritziak jartzen ditu aurrez aurre. Sagarra talde ekologistak, esaterako, lan handia egin du azken urteotan gai honen inguruan. Bertako kide den Bobi Galdós-en ustez, *“dagoeneko ikerketa askok utzi dute argi mota honetako antenen inguruan bizi direnengan hainbat gaitz ugaritu direla”*.

Horieta gaitzen artean aipa daitezke arretari eusteko zailtasunak, buruko mina, nekea, bihotzekoak, burmuinaren gaitasunak, Alzheimer, epilepsia, leuzemia, besteak beste. Galdós-ek dioenez, *“jende askok pairatu du hauetakoren bat, eta batzuk etxea aldatu ere egin behar izan dute”*.

Telefono-konpainiek, aldiz, besterik diote. UK Euskaltelegaz jarri da harremanean, eta euren erantzunak ere hainbat ikerketatan du oinarria. Batez ere, Espainiako Osasun eta Kontsumo Ministerioak argitaratu zuen txosten batean. La-

burbilduta, zera dio: ez dela frogatu antenen erradiazioen eta inolako gaixotasunen arteko loturarik. Kalterik jasateko, eguneroko bizimoduan pairatzen duguna baino askoz denbora luzeagoz pairatu beharko genituzke erradiaziook, txostenaren arabera. Bobi Galdós-en iritziz, baina, *“interes ekonomikoak tartean dabilzanean, beti egoten dira enpresek ordaindutako txostenak, euren entzun gura dutena esaten dutenak hain zuzen”*. Nor dabil zuzen? m



Sasoia da > Txakolinaren mahatsa



Orain da garaia datorren urtean txakolin goxoa izango den mahatsa batzeko. Urria hasieran uzta jaso, eta datorren apirilera-edo edabea botilan egongo da: hala esan digu Berangoko txakolingile batek. Aurten, hala ere, asko eta asko irailean hasi dira mahatsa batzen, udako bero itzelagaz fruitua arinago heldu delako. Oraingo mahatsa datorren apirilera txakolina izango da jeneralean, baina badago edarixko hau beste garai batzuetan merkaturatzen duenik, abuztuan esaterako; edota prozesua izugarri azkartzen duenik, aurtengo Santotomasetan txakolina edateko moduan egon dadin.

Gaizka Benguria > Elai-Alai dantza taldeko idazkaria

“Tradizioa eta koreografia berriak bereiztu behar dira”



Argazkian, Gaizka Benguria

Gaizka Benguria 29 urteko lemoiztar petoa da. Lanerako, ordea, Ezkerralderaino joan behar du egunero, Portugaleteko Elai-Alai taldeko idazkaria da eta. Horrenbestez, Benguriak Elai-Alairen atalen koordinazioa egitea du ardura: dantza eta musika taldeak, abesbatza, xake taldea, eta zelan ez, “munduko garratzitsuenetakoa” den Nazioarteko Folklore Jaialdia. Ez da lan makala.

—Zelan sartu zinen Elai-Alain?

—1995ean musikari moduan hasi nintzen, trikitixa jotzen dut eta. Hurrengo urteetan Nazioarteko Folklore Jaialdiaren antolakuntzaz arduratu nintzen, eta 2000. urteaz geroztik, talde osoko idazkarietako bat naiz.

—Jarraitzen duzu trikitixa jotzen?

—Gero eta gutxiago. Jende berria sartu da musika taldean, eta hori ere ondo dago, antzezlekuan beti aurpegi berak ikustea ez da oso ona.

—Zer da hobia, oholtza ala bulegoa?

—Batzuetan errezagoa da hemen, mahaiaren atzean egotea.

—Esaten da kulturaren oro har, eta euskal dantzaren zehazki, krisialditxo dagoela, ez dela jende gazterik sartzen... Zer deritoxozu?

—Guk ez dugu inoiz arazorik eduki. Hor daukagu txikien talde bat, eta beti dago jende nahiko. Esaten da, ez dakit egia den, mutil gutxi dagoela. Neskak beti egoten dira, baina mutilak... Halan eta

guzti, badiotsut guk ez dugula arazo handirik eduki.

—Baten batek esan zuen hobe izango zela dantzari onenak elitezko talde gutxi batzuetan biltzea, eta beste batzuen iritziz, hobe litzateke herri bakoitzean talde txiki baina duina edukitea...

—Bi horietatik, lehenengoarekin ez nago ados. Hobe bigarrena. Bestela, bi edo hiru talde oso on egongo lirateke, eta besterik ez.

«Antzeztokian beti aurpegi berak egotea ez da ona»

—Bestetik, azken boladan koreografia berezi samarrak egiten dabilta talde batzuk. Nondik jo behar du euskal dantzak, hortik ala tradizioari gehiago lotuz?

—Nik uste dut bereiztu egin behar direla alde batetik koreografia (eta egiten direnak oso ondo eginda daude eta ikuskizun polita dira), eta bestetik, euskal dantza eta euskal tradizioa. Guztiz desberdinak dira. Euskal dantzetan gauza berri apur batzuk sartu ahal dira, baina koreografia desberdinak sartzen direnean, beste gauza bat bihurtzen dira, gauza guztiz berria. Dantzaren ildo batek hortik jo dezake, baina ez tradiziozkoak nik uste.

—Zuena bezalako talde ezagun batek, zenbat dantzaldi egiten ditu urtean?

—Euskal Herrian gutxi.

—Nahita, ala behartuta?

—Behartuta. Nahita ere izango da hein batean, baina gehienbat behartuta da, gehien bat jaialdirako egiten dugulako lan, eta urtean egiten ditugun bat edo bi nazioarteko elkarrukeetarako. Horretarako izaten dira ia indar guztiak. Aitzakia dela eman dezake, baina... m

Gogoa >

Depresioa

Nagore Etxebarri psikologoa

Aurreko zenbakian depresioa aipatu genuenez gero, goazen orain argitzera egon daitezkeen depresio motak, jende askok jasaten duten gaitza da eta. Duela hamabost egun aipatutako bederlatzi ezaugarrietatik gutxienez bostek agertu behar dute depresioaren diagnostikoa egiteko. Salbuespen dira dolu egoerak, maitatutako norbaiten heriotza dela-eta jasaten den atsekabealdiak. Beraz, hona depresio motak:

- **Malenkonia:** interes eza, atsegina sentitzeko ezintasuna eta anorexia agertzen dira, baina nortasunaren aldaketarik gabe.
- **Urtaro aldaketak:** aldika agertzen den depresio errepikakorra da, non gaixoaldi bakoitza erabat sendatzen den. Gutxienez hiru gaixoaldi jasan behar dira depresioa mota honetakoa dela esateko, eta horiek urteko sasoi berdintsuan gertatu behar dira.
- **Depresio nagusia:** kasu honetan ez da maniarik egoten. Depresio mota hau arina, ertaina, larria edo sintoma psikotikoduna izan daiteke. Aldi bakarrekoa zein errepikakorra izan daiteke; bigarren kasua dela esateko, aldi batetik bestera gutxienez bi hilabete eman behar dira sintomarik gabe.
- **Depresio bipolarra:** depresioaldi bakoitzarekin manialdi bat dago lotuta, eta halako aldien sakontasunaren eta iraupenaren arabera sailkatuta dago: maniakoia, depresioa eta mistoa. Aldiek osatzen dituzten zikloak urtean birritan gutxienez agertuko dira; depresio mota hau kronikoagoa izaten da.
- **Distimia:** gogo aldarre deprimitua agertuko da bi hilabetearen zehar gutxienez, baina depresioaren sintometatik bi baino ageri ez direla. 4


Gorputza > migraina

Buruko min berezia

Jabier Agirre medikua

Migraina (edo "jaqueca" famatua gaztelaniaz) buruko min berezi samar bat da: hasiera batean garezurraren alde batean somatzen da, eta ondoren inguru zabalagoa hedatzen. Gainera, liseriketa arloko arazoak (goragaleak) ere ekarri ohi ditu berarekin, bai eta gorputz nekea eta ondoeza orokorra.

Migrainak sortzen duen mina gogorra, zorrotza eta taupakaria da (bekokian, lokietan, masailezurretan, belarri eta begi-inguruetan nabaritzen diren kolpe modukoak dakartza). Kasuen % 25en, min-krisiaren aurretik (10-30 minutu lehenago), norbera "konturatu" egiten da migraina badator-



«Migrainak jotzen duenean, onena gela ilun eta isil batera gordetzea dugu, eta lo egitea ahal izanez gero.»

kiola, aura izeneko abisuaren bidez: besteak beste, orban beltzak edo sigi-saga moduko irudiak agertzen zaizkio ikus-eremuan, inurridura sentsazioa aurpegian... Krisiak 4 ordutik 72 ordura iraun dezake (bai, ongi irakurri duzue: hiru egun oso).

Mina da migraina guztiek dakarten sintoma, baina ikusi dugun bezala, krisi motak asko aldatzen dira pertsona batetik bestera. Hala ere, hona hemen gomendio orokor batzuk:

- Bizimodu osasuntsua: loa eta atsedena ondo zaindu, ariketa fisikoa egin, bai eta estresaren kontrako erlaxazio-ariaketak.
- Ez automedikatu, ez minaldi gogorretan ez eta minik gabeko tartetan ere, analgesikoak erabiliz gero handia delako migraina kroniko bihurtzeko arriskua.
- Migrainak jotzen duenean, onena gela ilun eta isil batera gordetzea dugu, eta lo egitea ahal izanez gero. Batzuetan nahikoa izaten da hori egitea mina joan dadin. Beste kasu batzuetan, ordea, beharrezkoak izan daitezke botikak: eraginkorrak izaten dira ergotamina tartratoa (Hemicraneal edo Tonopan marka ezagunak), parasetamol eta kodeina; baina jakina, beti medikuaren aginduz eta berak esaniko dosiei jarraituz hartuko ditugu. m



Erakustaldian ikusi ziren modeloetako batzuk

Getxomoda 2003

Euskal modaren hitzordua

Irailaren 19an Getxomodaren erakustaldi berria egin zen Areetan. Antonio Miró ospetsuaren eta Euskadi eta Portugalgo diseinatzaile hobereenen desfileez gain, herriko dende udazkenerako eta negurako jantziak aurkeztu zituzten.

7.000 lagun baino gehiago bildu ziren Areetako Geltokiko plazako zen karpapean, Getxomodaren XIX. erakustaldia osatu zuten lau desfileak ikusteko. Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteak antolatu zuen ekitaldia, eta aurtongoa "arrakastatsua" izan zela adierazi dute arduradunek, "bertara hurbildu zen jendetzarengatik ez ezik, genituen helburu guztiak bete zirelako ere".

"Euskadiko moda ekitaldirik garrantzitsuenak" arratsaldeko 6etan hasi eta ia gauerdia arte luzatu zen. Euskadi, Kantabria eta Burgostik etorritako 15 diseinatzaile berri eman zioten hasiera egitarauari, "maila handia erakutsiz"; horien artean, Nerea Muela eta Luisa Pérez getxoztarrak egon ziren. Amaieran, María Marín bilbotarrak jaso zuen diseinu onenaren saria. Beste bat ere eman zuten, hobekien desfilea izan zuten modeloari; 27ren artean, Eider Alonso gaztea izan zen zorionekoa.

Getxoko zortzi dendak udazken eta negu honetan salgai ipiniko dituzten jantziak ere erakutsi zituzten. Horietako batek aipa-

men berezi bat jaso zuen, Getxomodan 12 urtez laguntzen eta parte hartzen izan delako: Algortako JB jantzi-denda, hain zuzen.

Alicia Rueda, Marta Teheran edo bertoko J+G lehen mailako euskal diseinatzaileen proposamenak gozatu ahal izan zuten ikusleek; "Portugal Fashion" izeneko taldea ordezkaturik, berriz, María Gambina eta Katty Xiomara, besteak beste, egon ziren Getxomodan. Eta aurtongo ekitaldia borobiltzeko, Antonio Miró katalanaren sorkuntza berriak. m



I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

Arasa
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa
SARRIKOBASO SUKALDEETAN ADITUAK GARA
Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAMBINA
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



INMOBILIARIA

Basagoiti, 55 behe / 48990 ALGORTA
T.: 94 460 09 62 / 66 / Faxe: 94 460 0966

eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behe ezkerre
ALGORTA


ALBE alerik ale

Zaindu beharreko altxorra

Peio Unzurrunzaga > Kategoria handiko tipo berezia

Algortan bada pertsonaia bat, hurbiletik jarraitu beharrekoa, aldi berean hotza eta sutua, bitxia eta arrunta, apala, klasekoa. Gaijartzaile berezia, lotsorra kantuan, inork ez daki zer duen Peiok gordeta bere zakuan!

Testua: **Josu Arroyo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**



«Aurkezle moduan, luzatu gabe gaiei intriga apur bat eragiten saiatzen naiz»

—Ikastolan txokorik txoko hasieran, gimnasioan gero, eta Aldai Patronatuan azkenik. Nolako bizipenak izan dituzu lekuotan?

—Oso politak hiruretan. Gogoan dut bertsoa nola ezagutu genuen maisu Paulen eskutik, «hutsuneak bete» erako ariketen bidez errimak-eta asmatuz. Handik gutxira, Joseba Santxok irakatsi zigun bertsoak osatzen, doinuak..., jolas eran, eta umeak ginen aldetik jolasean ederto pasatu genuen. Gimnasioko garaian, bat-baterako jautzian trebatu nintzen, eta aldi hartan bertso saio ugari entzutera joan ginen, Gipuzkoara batik bat, eta bide batez asko bertsozaletu ere. Gero denbora luzez huts egin nuen, baina iaz berriro hasi nintzen eskolara joaten, eta ez da girorik falta, batez ere eskola osteko hirugarren denboran.

—Gaijartzaile eta aurkezle moduan, zeure estiloa garatu duzu. Zertan da estilo hori?

—Tira, tira... Gustatuko litzaidake gai xebreak eta intelektualak nahastea, plan-teamenduan azpitik mezuren bat gordetzen dutenak, baina ideiei bueltak eta

bueltak ematen aritu beharra daukat, eta askotan ez dut aurrekoetatik bat ere lotzen. Aurkezteko erari dagokionez, luzatu gabe gaiei intriga apur bat eragiten saiatzen naiz. Dena den, agerian geratu behar den estiloa bertsolariarena da, eta ez gaijartzailearena.

—Zenbateko balioa ematen dio Peio musikariak bertsoari?

—Bat-bateko bertsolaritza musikarekin laguntzea gauza handia litzateke, baina ez da batere erraza, zer esanik ez pertsona bera bada aldi berean bat-batean eta musika tresna jotzen ari dena. Hala ere, bada

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Peio Unzurrunzaga Zelaia.
- ▶ 1976ko martxoaren 29an jaioa.
- ▶ Algorta du sorleku eta bizitoki.
- ▶ Musika ikasketak ditu bukatuta.
- ▶ Medikuntza eginda, MIR-a ari da prestatzen.

BERTSOTAN, NOIZ?

Bertsogaijartzailea: **Peio Unzurrunzaga**
Doinua: **Trumoi ortzi beltzean hoska**

1

Jaietan sarri batu ohi gaitu, bertsoak bere bizia baitu, ta guk gustuko dugu bertsotan koadrila erdia bahitu. (bir)
Bozgorailuen dezibelioak eztarri oihuz garaitu, ahotsik gabe amaitu; eta egunak argitu arren, bertso kantari jarraitu. (bir)

2

Batzutan penak begitartean azaltzen dira oharkabean, eta orduan, dena ezin da azaldu lagunartean. (bir)
Nik nahiago dut ohean sartu eta, halako batean, gaueko bakardadean, burukoari bertsotan egin loak hartu bitartean. (bir)

3

Bertsotan egin daiteke, tira, gaiak eskatzen duen neurrira: metrozainari, zein amari, zein izarretara begira; (bir)
injustizien kontra, ozenki; gozatzeko, belarrira... mila aukera guztira!
Bertsotarako gogorik bada, denak egokiak dira. (bir)

HIRU LERROAN

“Tarteka bertso sorta txikiak idazten ditut, zerbaitek arduratuta naukanean, baina niretzat gordetzen ditut”

hori egin duenik. Kontua da, bertsolariak puntutik puntura egiten dituen pausa naturalek musika geldiarazten dutela. Schubert-en doinu bat oso aproposa iruditu zitzaidan behin, horretarako konpas batzuk moldatuta. Ea egunen batean eskolara musika tresnak eraman eta entsaiatzen dugun, gero jendaurrean egiteko.

—Gaztetxotan bertso idatzien txapelketetan sariak irabazita, guztiz utzita al duzu jardun hori?

—Hura txapelketa bat baino ez zen izan. Umetan, bertso eskolan zaudela, txapelketetara aurkezten duzu zeure burua, baina gerora ez dut bertso idatzirik sariketetara bidali. Tarteka idazten ditut sorta txikiak, zerbaitek arduratuta naukanean, baina niretzat gordetzen ditut. Denbora pasata logela txukuntzen dudanean, bestelako paperen artean topatu, irakurri eta barre

egiten dut, eta azken finean hori da, gogoratzea, gehien gustatzen zaidana.

—Berritzaile eta berrizale zaren horrek, zer beste apartazio egingo zenioke egungo bertsolaritzari, edo eskolari berari?

—Egia esan, lotsa apur bat ematen dit hori entzuteak, eta nahiago dut egunero bertsolaritzaren alde lan egiten dutenen proposamenak entzun. Eskolakide bezala, gustatuko litzaidake gure arteko bertso afariak sarriago antolatzea eta bertako girora biltzea.

Peioren berbak bereziak dira, behin eta berriz irakurtzekoak, desberdinak. Eta aitortu beharra daukat elkarrizketa hau ere desberdina izan dela, lagun handi bati egindakoa baita. Bertsoak ere gogoan hartzeko modukoak dira, beraz, adi-adi irakurri, eta ozen kantatu! m

BERTSOAGENDA

BIHOTZA GAZTE jaialdi berria

Urriak 25, 19:30ean
Algortako Itxasgane kulturgunean

Bertsolariak:
Joxe Agirre, Manolo Arozena,
Jon Lopategi eta Jon Azpillaga
Gaijartzailea:
Bernardo Mandaluniz

Gogoratu ALBEko web orrian
bertso agenda gaurkotua duzuela:
www.albegetxo.net

Erakusleak

Aurrekoan, teoria apurtxu bat ikusi genuen. Hain zuzen ere, artikularen erabileraren gainean jardun genuen. Oraingoan, izen morfologiarekin jarraituko dugu, baina erakusleak ikusiko ditugu.

Testua: **Urtzi Iglesias**

Atal honetan erakusleen deklinabidea ikusiko dugu. Erakusle arruntak baino ez ditugu agertuko, nahiz eta indartuak (honetxek, haretxeri...) eta berrindartuak (eurek, berau, berari...) ere erabiltzen diren.

	HAU	HORI	HA
Nor	hau	hori	ha
Nok	honek	horrek	hak/harek
Nori	honeri	horreri	hari
Noina	honena	horrena	harena
Nogaz	honé(g)az	horré(g)az	há(g)az/ hareaz
Norentzat	honéntzat	horréntzat	haréntzat
Nogatik	honé(g)aitik	horré(g)aitik	haré(g)aitik
Nogana	hone(g)ana	horre(g)ana	hare(g)ana

	HÓNEK	HÓRREK	HÁ(R)IK
Nor	hónek	hórrek	háik
Nok	hónek	hórrek	hik
Nori	hóneri	hórleri	háiri
Norena	hónena	hórrena	háine
Nogaz	hónekaz	hórrekaz	háikaz
Norentzat	hónentzat	hórrentzat	hóintzat
Nogatik	hónekaitik	hórrekaitik	hárekaitik
Nogana	hónekana	hórrekana	háikana

Adibideak:

Ondo bixi eta beharrik ez ein, hori iten deu jentek oin, ta hori ez dao ondo (Getxo)
 ‘Ondo bizi eta lanik ez egin, hori egiten du jendeak orain, eta hori ez dago ondo’
Jaio daneko dabil hortan, ze hak ez deu besterik euki (Erandio)
 ‘Jaio zenetik dabil horretan, hark ez du besterik eduki eta’

* Erakusleak, gehienetan, izenaren aurrean agertzen dira. Adib.:

Itzi, itzi horreri geldí ze honek aldeanuk ez dakie partidu zer dan bere (Sopela)
 ‘Utzi, utzi hori geldí, baserritar hauek partidua zer den ere ez dakite eta’

Gurberbake^{2e7}

BERBA JATOR BATZUK (V)

Testua: **Xabi Bilbao**

Gaur izenondo edo adjektibo batzuk ikusiko doguz, gauzak eta pertsonak ZELAU(K) -Zelako(ak)- direzen esateko erabiltzen direzenak gure paraje honetako euskeran.

- **amotz:** Honen kontrako berbe “zorrotz” da.

—*Labaiñe ederra bai, baia ondo amotza emon dostezu! Honéaz élei (ez leike) ebagi ezer!*

Berba bion aditzek bere sarri erabiltzen direz: **zorrotzu** eta **amoztu**.

—*Ordu bat pasa nendun axkore zorrotzuten, baia behingon amoztu da átzerá.*

- **artez:** Honen kontrako “oker” da. Sarri erabiltzen direz honek berba biok pertsonan izakere zelako dan esateko.

—*Ha diktadora ondo okerra ixen zan guréztako, baia oingo aginteritxu hau bere ezta bápere arteza!*

—*Kánpotarrakaz jente asko ezta fiaten, baia sarri bertákok baño artéztzuk íxeten direz.*

Honek biok aditzondo (adberbio) lez bere sarri erabiltzen direz (baia *oker* -> *okertute* esanta):

—Automobileko antene *okertute* topa dot eta májo kosta dat *artez* párate.

- **atxiñeko:** Honen kontrako “oingo” (oraingo) edo “orain dala gitxiko” direz.

—*Atxiñeko kóntuk dekoz beti burun, baina oingo gáuzakaz ezta akórdaten.*

—*Pernando Amezketarran pasadizuk atxiñékok direz, baina oingo úmek ondo pozik éntzuten daudez.*

- **baliénte:** Hau berbe, beste asko lez, ez dogu erabiltzen erderazko esangure beragaz: hau da, gure **baliénte** ez da “koldar”-en kontrako. Gure euskeran erabiltzen dogu pertsona bat sendo, indertsu dala esateko, batez bere adore edo animu aldetik:

—*Yólasan sarri ibiltzen da, baina gero estúdiáteko órduñ bere baliénte da.*

—*Amama baliénte dabil, arrásti dúztiten solón tópakozue beharren.*

- **behargin:** Honen kontrako “alper” da.

—*Ondo behargiñe da hori mutille, baia ezteko suerterik beharra tópateko órduñ.*

—*Lehen dánok ixen ber (behar) behargiñek bizimodu atánateko.*

Izen legez bere erabiltzen da berba hau, “langile” esateko.

—*Enpresa horretako behargiñek, érdik, kánpora bóta gure daudez oin.*



zure
dirulaguntza
behar-beharrezkoa
dugu

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Lebatza sagar saltsan

Hasteko saltsa prestatuko dugu. Horretarako lapiko batean oliba olio pitin bat eta berakatzatza bota, hauek urreztatu arte. Gero, gurin apur bat, tipula eta porrua oso ondo txikituak gehitu eta bigundu arte su txikian egin. Bigun- bigun dagoenean, sagar eta tomate zatiak bota eta sutan izan dena ondo egin arte. Gero koñak txorrotada bat eta arrain salda apur bat bota (ez badaukagu, saltzen duten kontzentratua erabil daiteke). Nik hau guztia lehenengo pasapuretik eta gero txinotik pasatzen dut. Lan gutxiago hartu nahi badugu turmixa erabili baina gero komenigarria izaten da atzera sutan, irakiten jarri saltsa, kolorea gal ez dezan. Bestetik, lebatza-solomoa labean oliba olio apur batekin egin behar da, 180°tan hamar minutu nahikoa da.

osagaiak (hiru lagunentzat)

lebatza solomo bat • hiru kipula • hiru porru • berakatzatza • lau sagar
arrain salda • koñaka • oliba olio • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardo ekologikoa

Ardo hau egiteko ezin da antioxidanterik erabili, ezta anhidrido sulfurosorik. Teknika fisiko batzuk ere bazterzen dira, esaterako, filtrazioa murrizten da. Jancis Robinson adituaren arabera, debeku hauetako batzuk ez dute oinarri zientifiko handirik. Adibidez, ardo ekologikoetan, azidifikaziorako, ez da azido tartariko erabiltzea onartzen. Honen ordez limoi zukua erabiltzen da, beti ere bio bada, baina ardoan azido tartarakikoa da nagusi eta ez zitrikoa.

Ardo ekologikoa antzinako teknikak erabiliz egiten da, aditibo eta antioxidanteak ezagutzen ez zirenean. Horregatik bere ezaugarri biologikoa ez da gauza berria. 70eko hamarkadatik aurrera, gero eta mahasgile gehiago metodo zaharretara itzultzen ari dira, bai arrazoi ekologikoengatik edo komertzialengatik.

Ardo hauen kalitatea ez da bitarteko fisikoak erabiliz egiten direnena baino hobea. Batzuetan, oxidazio nazkagarria izaten dute, nahiz eta azken uztakoak izan. Izan ere, euren ezaugarri frutal gehienak galtzen dituzte oso antioxidante gutxi dute eta.



Kala Kantarepe taberna Tortilla pintxoen tenplua



Gustavo Kormanek eta Iñaki Bilbaok bizia eman diote tabernari, baita jendea erakarri ere

Kantarepe berez Portu Zaharraren eta Arrigunagako hondartzaren artean dagoen haitz-kala da, baina hala du izena Algortako sarreran (edo irteeran) dagoen tabernak ere. Gustavo Korman eta Iñaki Bilbao algortarrek lau urte daramatzate taberna horren bazkide. Bertan mus txapelketak antolatzen dituzte; aurtengoa (bosgarrena dagoeneko), urriaren 14an hasiko da: "25 bikote inguruk ematen dute izena, eta giro bikaina egoten da".

Bai Gustavok bai Iñakik prestatzen dituzte Kala Kantarepeko pintxoak, eta aukera zabala eskaintzen dute gainera: sandwichak, antxoak arrautzaztatuak, jildak, txipiroi frijituak... eta asteburue-

tan, maziak eta txopitoak. Baina euren tortilla pintxoek dute bereziki ospe ona: tipulagaz edo barik, urdaiazpiko eta gaztagaz, txorizoagaz eta perretxikoakaz. Pintxo horiez gain, asteburuetan kazolatxoak ere prestatzen dituzte zerbait sendagoa jan gura dutenentzat: tripakiak, olagarroa, txerri-hankak, barraskiloak, krocketak eta iberikoak.

Astelehenetan itxita egoten den taberna honek euro baten truke eskaintzen ditu pintxoak; kazolatxoaren prezioa, berriz, 4,50 eurotik 10era doa, batez beste.

KALA KANTAREPE TABERNA

Euskal Herria kalea 18, Algorta

Telefona: 94 460 76 57



T: 430 53

BEROGAILU
ETA
ITURGINTZA

Sarrikobaso 15

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?


herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezi, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Turikaldoi

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezi 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

SATISTEGI



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

zure **publizitatea** hemen

UK 94 491 13 37

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak
Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Aseezina zara, Ura, udako oporrak igaro berri dituzu eta dagoeneko Gabonetakoetan pentsatzen zabilza. Badakigu behar-beharrezkoak dituzula oporrak, baina lasaitzen ez bazara, exxean pasatu beharko dituzu jai-egun haiek nerbioak jota.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Ez zaitetz kezkatu. Azkenaldian lagun horregaz dituzun arazoak berez konponduko dira. Izan pazientzia, uste baino lehen gauzak bere onera itzuliko dira-eta. Bestalde, ezustekoren bat jaso gura ez baduzu, zaindu dirua.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) "Look" aldaketa hori zein ondo etorri zaizun, ezta? Orain bai itxura ona duzula. Ederra alde! Ingurukoek ere igarri dute hori, baina bereziki, ezkutuan dagoen pertsona batek igarri du.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Diru kontuengatik eztabaidaren bat edo beste izango duzu laister. Abisatuta zaudenez, ahalegindu zaitetz zuk dakizun hori lehenbailehen konpontzen. Joan zaitetz dentistagana, beharrezkoa ez dela uste duzun arren.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Orain gutxi entzun dituzun hitz gozo eta polit horiek ez itzazu beste ezeregiz nahastu. Ez da amodiozko deklarazioa izan. Lagunek ere hitz politak esaten dituzte baina kasu honetan behintzat, hori da gutzia.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Luzaroan ezer ez eta bat-batean hiru lagunek azaldu dizkizute euren sentimenduak eta ez edonolakoak gainera! Ez zaitetz estutu, har ezazu behar duzun denbora, eta erabakia ere erraz hartuko duzu.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Hamabostaldi biribila duzu aurretik. Osasuntsu sentituko zara, umorez ezin hobeto, amodio kontuetan zoragarri, eta diru aldetik ere ez duzu inolako arazorik izango. Hori pagotxa! Zu bai zu, zorioneko!</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ez duzu uste kapritxoetan diru larregi gastatzen duzula? Hil amaieran gero estu eta larri ibiltzen zara. Dirua beste era batera erabiltzen ikasi beharko zenuke, horrela buruhauste bat baino gehiago kenduko duzu-eta.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Umore txar horrek ondorio larria ekar diezazuke epe laburrera. Pazientzia galtzen hasia da bat baino gehiago, eta adi ez bazabiltza maite duzun pertsonaren bat gal dezakezu. Kontu izan.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Benetan dinosut, kirola egiten hasi beharko zenuke. Giharak gogortuta dituzu, eta zer esanik ez hezurrak! Kirola egitea asko kostatzen zaien horietakoa bazara, proba ezazu mendia, suabe-suabe.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Araoak hitz eginez konpontzen dira, gehienak bai behintzat. Aurpegira begiratu barik egonda ez duzue aurrera egingo. Bera ez bada ausartzen, zuk eman lehen pausoa, merezi du-eta.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Datozen egunotan zortea zure alde izango duzu, Negua. Diru aldetik ondo ibiliko zara, baina batez ere amodioak ekarriko dizu poztasunik handiena. Zertaz ari garen? Zapatu gauean jakingo duzu.</p>


mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako herria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko herria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak



eUSKALDUNON
denbora-pasa eta
hitz jokoen hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK
 HELBIDEA
 HIRIA
 LURRALDEA P.K.
 TEL. E-MAILUA

KONTU KORRONTEA:.....
 LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutsatila 20300 IRUN
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xvedera.com

www.xedera.com



Unai Brea

Erromoko Nuestra Señora de los Ángeles ikastetxeko ikasleak, 1960

Gaurkoan, garai bateko Nuestra Señora de los Ángeles ikastetxeko erretratuak dakargu. Dagoeneko ikastetxea ez da existitzen, baina gerra aurretik eta gerra ostean Erromoko hainbat neska igaro ziren bertatik, Zaballa izeneko gizon batek utzitako eraikinean euren ikasketak burutzeko (ikastetxea bera, hala ere, egoitza nagusia Irunen zeukaten moja batzuenaren). Denboraz, gero eta ikasle gutxiago eduki zituen Nuestra Señora de los Ángeles-ek, neskek 14 urtera arte bakarrik egoten zirelako bertan eta batxilergoa egiteko beste leku batera jo behar zutelako. Azkenik, eskolak ikasle guztiak galdu eta haurtzaindegia paratu zuten beraren ordean; 80ko hamarkadan, Getxoko Udalak erosi zuen egoitza, eta gaur egun Erromoko Kultur Etxea dago bertan. Ameli Antruejori esker lortu dugu 1960ko abenduan egindako argazki hau, eta baita ikastetxearen gaineko informazioa ere. m

Lehen lerroa (behean), ezkerretik eskumara: M^a Angeles Hernando, Mari José Gauna, Pili Markijana, María Eugenia Gascón, Karmen Larzabal, Pili Zabala, Begoña Ugarte, Mari José Díez.

Bigarren lerroa, ezkerretik eskumara: Julita Expósito, Mari Antonia Txolla, Bego Aresti, Loli Markijana, Ana Mari Valderrama, Pili Hazas, Elisabete Silvano, Felisa ?, Mari Sol Silvano, María Angeles Bujedo.

Hirugarren lerroa, ezkerretik eskumara: Ameli Antruejo, Anun Otegi, Felisa Vázquez, Raket Pérez, Jaione Egaña, Arantxa Escudero.

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- 26 urteko algortar hau oso trebea da ohol baten gainean
- Kepa eta lker anaiak ere kirol berean dihardute
- Hiru aldiz irabazi du Europako surf txapelketa

> Aurrekoaren erantzuna: Ane Igartiburu
 > Irabazlea: ***Ainize Moral Atela (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
 ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Zumeta-Artzeren lamina

www.argia.com

VIRGINIA BERASATEGI > kirolaria

“Izaera lehiakorra daukat”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Nahiko pertsona sentikorra naiz; batzuetan izaera bikoitza dudala dirudi, bai onerako, bai txarrerako. Bestalde, oso zorrotza naiz neure gauzekin eta izaera lehiakorra daukat.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Oso pertsona sutsua naizenez, haserretzen naizen bakoitzean ateraldi gogorrak izaten ditut. Hala ere ezin dut bi egun eman haserretu naizen pertsona horregaz hitz egin gabe.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Oroitzapen asko ditut eta zehaztasun handiz gogoratzen ditut. Hiru urte nituela femurra hautsi nuen eta oso ondo gogoratzen ditut egun horretako xehetasun guztiak! Orduetik, ospitalekin zerikusirik daukan edozein gauza ez dut batere atsegin.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Pertsona bakarra aukeratzea nahiko zaila da, baina kirolaren arloan Miguel Indurainekin geratuko nintzateke, bai kirolari ona izan delako, bai bere izakeragatik, oso umila da eta. Neure gurasoak ere miresten ditut, batzuetan zalapartak eduki arren.

Zein da zure libururik gogokoena?

Asko gustatzen zait irakurtzea, eta denetarik gainera: nobela historikoak, autobiografiak... Truman Capoteren lanak gustuko ditut, *Desayuno en Tiffany's* esaterako.

Abestirik gustukoena?

Musika biziki maite dut, klasikotik heavyrainera. Ez dut batere gogoko komertziala den musika, edota txunba-txunba, ez baitaukat mezu zehatz bat.

Eta film bat?

Asko gustatzen zaizkit britainiar eta japoniar filmak, baina horiez aparte zuri-beltzeko klasikoak dira gehien gustoko ditudanak, *Desayuno con diamantes* esaterako.

Zein leloekin egiten duzu bat?

Momentu honetan: arriskatzen ez duenak ez du irabazten. *Carpe diem* ere oso lelo egokia iruditzen zait.

Zerk ematen dizu beldurra?

Neure buruak eta neure zalantzek beldurtzen naute. m

VIRGINIA BERASATEGI— Hogeitazortzi urte dituela, Bilboko atleta honek Munduko Txapelketa bereganatu du aurten Triatloneko distantzia luzeko mailan (3,5 kilometro igeriketan, 120 kilometro bizikletan eta 30 kilometro lasterketan). Ez da, gainera, Virginiak bere ibilbide oparoan irabazi duen txapelketa bakarra, garai-pen zerrenda ederra dauka eta. Orain Sondikan bizi da, eta bere ibilbide profesionalaren aldi onenetarikoan dago, esan digunez. Burdinazko borondatea, burdinezko kirolari batentzat.